

Ordizian, 2015eko apirilaren 30a UDALBATZARRAK Ohiko bilkura egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

BERTARATUTAKOAK:

LEHENDAKARIA:

Igor Eguren Izagirre jn.

BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:

Belén Maiza Urrestarazu andrea	BILDU taldea
Juan Mari Gereñu Aldasoro jauna	BILDU taldea
Edurne Gutierrez Jauregi andrea	BILDU taldea
Imanol Iturrioz Lauzirika jauna	BILDU taldea
Iban Asenjo Garde jauna	BILDU taldea
Jose Miguel Santamaría Ezeiza jauna	EAJ taldea
Judith Otegi Lopez de Murillas andrea	EAJ taldea
Jose Ignacio Iturrioz Gotor jauna	EAJ taldea
Arantzazu Garin Garmendia andrea	EAJ taldea
Bittor Bolinaga Alzelai jauna	EAJ taldea
Iñaki Dubreuil Churruca jauna	PSE/EE (PSOE) taldea

BERTAN IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK

Izaro Intsausti Zinkunegi andrea. BILDU taldea

IDAZKARIA:

Iker Rocandio Etxeberria jn.

KONTUHARTZAILEA:

Jose Luis Aranburu Otegi jn.



BESTE BERTARATZE ETA IRTEERAK

Edurne Gutierrez Jauregi andrea.BILDU taldea.10.puntuaz aztertu aurretik bertaratu da bilerara.

AZTERTUTAKO GAIAK

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK:

1. 2015eko martxoaren 26an egindako osoko bilkurarako gaien batzordeko akta onartzea.
2. Alkatetzaren dekretuen berri ematea.
3. Zenbait gasturen ingera txostena, Kontuhartzaile jaunarena.
4. 2012ko abenduko aparteko pagaren zati bat ordaintzeari buruzko eta gainerako kopurua aurreratzeari buruzko akordioa.
5. Ordiziako udaleko pertsonalaren galdutako erosteka ahalmena berreskuratzeko orainsari kontzeptua ezarteko akordio proposamena.
6. 2015 ekitaldiko lanpostuen zerrendari lehenengo aldaketa.
7. Ordiziako Udaleko eta San Jose Egoitza Erakunde Autonomoko giza baliabideen antolamendurako Plana.
8. Ordiziako udaleko langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmena aldatzea.(udalhitz)
9. Gipuzkoa lurralde historikoko udalerrietan "Lurraldekar" proiektu pilotua martxan jartzeko lankidetzarako Protokolo orokorra.
10. Goierrin indarkeria jasaten duten emakumeen arreta egoki eta koordinaturako protokoloa onartzea.
11. Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren eta Ordiziako Udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena Udaltzainen oinarritzko eskalari dagozkion barneko udaltzainen lan-poltsa osatzeko.
12. Txindoki 15 HIEren etorkizuneko garapena eta indarrean dagoen plangintza aldatzeko ORKLI S. COOPek eta Ordiziako Udalak adostutako Hitzarmenari aurkeztutako alegazioak. Behin betiko onartzea.
13. Ordizia etay Basque Culinary Center Fundazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena.



PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:

GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAHIAK:

GORABEHERAK

ORDUTEGIA:

HASIERA: 19:00 etan

AMAIERA: 21.03etan



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

1.-2015eko martxoaren 26an egindako ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2015eko martxoaren 26an egindako ohiko Osoko Bilkurako akta onartzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Kontuhartzaileak azaldu du gaztelaniazko alean, 5. puntuan (Krediturik gabe egindako gastuak 2015eko aurrekontuan sartzea), 9. orrialdean, kopuru bat oker jarri dela. Gastuen batuketaren bukaeran, "136.143,66" dioen lekuan, "36.143,66" esan behar du. Euskarazko alea ez da aldatu, ondo baitzegoen.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du aipatutako aldaketan egin ondoren.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 6, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

2.- Alkatetzako Dekretuen berri ematea

Martxoak 16tik apirilak 15era bitarteko Alkatetzaren dekretuen berri eman da.

Jakinaren gainean geratu da Udalbatzarra





Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

3.- Zenbait gasturen ingera txostena, Kontuhartzaile Jaunarena.

Kontuhartzaile jn

Ingeren inguruko azalpenak eman ditu.

Dubreuil jn

Kontuhartzaile jaunari "2014ko zenbait lan eta obren onarpen falta" izeneko txostenari buruz galdetu dio, udal kontabilitatearen "kalitate eskasa" aipatzen duen puntuaz.

Kontuhartzaile jn.

Erantzun dio esanez 500 eurotik gorako gastuek gastuen onarpen fasea pasa behar dutela. Ez da horrela egiten, eta beraz, kontabilitatearen kalitatea ez da behar den bezalako.

Dubreuil jn.

Txostenean kopuru handiez ari dela esan du.

Kontuhartzaile jn.

Obra garrantzitsu batzuekin izapide hau berandu egin dela azaldu du.

Alkate jn.

Adierazi du horretarako dirua badagoela. Prozedura kontu bat da, baina diru hori aurrekontuetan sartuta dago.

Dubreuil jn.

Galdetu du ea Buztuntzako bidegorriaren obra aurreikusitakoa baino garestiagoa izan den.

Kontuhartzaile jn.

Adierazi du bere txostenean azaltzen den gastua ez dela jarduketaren bukaerako prezioa, baizik eta zehaztutako obraren lizitaziorako hasieran aurreikusitako partida. Benetako gastua baxuagoa izango dela uste du.



Udalbatzarra jakinaren gainean geratu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

4.- 2012ko abenduko aparteko pagaren zati bat ordaintzeari buruzko eta gainerako kopurua aurreratzeari buruzko akordioa.

Proposamena

AURREKARIAK

Aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2. artikuluko 2012ko abenduko aparteko ordainsaria kendu zien udaletako langileei, eta xedatu zuen diru hori erretiro-kontingentziarako estaldura duten pentsio-planetara edo aseguru kolektiboko kontratuetara bideratzea, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantzen Jasangarritasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, eta dagozkion aurrekontu-legeetan xedatutako baldintzetan eta helmenarekin.

Aipatu aparteko ordainsaria ordaindu ez izanaren ondorioz erosteko ahalmena murriztua izan zuten udal-langileen diru-premiak ahal den neurrian arintzeko, eta horretarako legezko bestelako soluziorik ez dagoen bitartean, Ordiziako Udalak ezohiko prozedura onartu zuen 2013ko aparteko ordainsariak aurreratzeko sistema bat eskatzeko. Dirua aurreratzeko sistema hori 2014ra arte luzatu da, urtez urte, irizpide berdinarekin.

Estatuko 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legeak, hamabigarren xedapen gehigarrian, ekitaldi horretarako ezartzen du aukera dagoela 2012ko abenduko aparteko ordainsaria partzialki berreskuratzeko, eta herri-administrazioak gaitu egiten ditu aipatu aparteko ordainsaririk gabe geratu ziren langileei aparteko ordainsariaren 44 sortzapen-eguni dagokion zati proportzionala, edo osorik jaso ez zutenei dagokien zati proportzionala ordaintzeko. Herri-administrazio bakoitzak neurri hori onartuko badu, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 22ko 2/2012 Lege Organikoak ezartzen dituen irizpideak eta prozedurak bete beharko ditu; halaxe gertatzen da Ordiziako Udalarekin.

Estatuko 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzko aipatu Legean ez da ezer aipatzen kendu zen aparteko ordainsariko gainerako zenbatekoen, ezta uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2.4 artikuluan hartutako konpromisoaz ere. Horrek aurreikusten zuen zenbateko horiek erretiro-kontingentzia estaltzen duten pentsio-planetara edo aseguru kolektiboko kontratuetara eramatea. Nolanahi ere, eta ezarritakoaren arabera, 2015ean ordainduko diren kopuruek murriztu egingo dute



aurreikuspenen helmena baldin eta aurrera begirako aurrekontu-legeek aipatu baldintzetan zehazten badituzte.

Horrela, formalki esplizitatzen ez bada ere, Estatuko 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 26ko 36/2014 Legeko hamabigarren xedapen gehigarriak sakonki aldatzen du aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko neurriei eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2.4 artikulua. Hain zuzen ere, 2.4 artikulua horretan, ikusi ahal izan dugunez, aparteko ordainsaria kendu izanaren ondorioz ordaindu ez ziren kopuruetarako "xede eskusiboa" ezarri zen, eta aipatutakoaren arabera: "aurrera begirako ekitaldietan pentsio-planetan ekarpenak egitera bideratuko dira (...), dagozkien aurrekontu-legeetan zehaztutako baldintzetan eta helmenarekin". Aurrekontu-legeetara berbidaltzea argia zen. Alabaina, horretarako, kopuru horiek ez ziren dirutan ordainduko, pentsio-planetara ekarpenak eginda baizik, bistan denez Estatuaren azken aurrekontu-legeetan kopuru horiekiko dauden aldi baterako debekuak altxatzen direnean, abenduaren 26ko 36/2013 Legeko 20.3 artikuluan gaur egun ezarrita dauden baldintzekin.

36/2014 Legeko hamabigarren xedapen gehigarriak ordura arte indarrean zeuden premisa horiek nabarmen aldatzen ditu; izan ere, ez du zentzu teleologikorik uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2.4 artikuluan jasotako arauari indarraldia ematea, 2015erako Aurrekontuei buruzko Legeak bere eduki materiala erabat aldatu duenean. Horrek guztiak agerian uzten du aurrekontu-legegileak aurrekontu-egonkortasuneko helburua betetzeko kontu publikoak doitu behar zirela-eta bere garaian kendu zen aparteko lansaria konpentsatzeko sistema ekonomiko eraginkorra ezartzearen alde egin duela. Zerga-salbuespeneko fasea gaindituta, salbuespeneko araua lasaitu egin da, areago, berdefinitu egin da.

Hortaz, aurrekontu arauemaile horietatik aurrera, begien bistakoa da Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeak uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2.4 artikuluan jasotako erregulazioa aldatu duela. Atxikitako kopuruak itzultzeko, toki-erakundeek itzulketa hori zein baldintzetan eta moduan egingo den erabakitzeak duten konfigurazio-marjinak lege hartan berariaz jasotakoak baino zabalagoak dira, lehenengo atalak berak xedapen horretaz "*in fine*" berariaz aipatzen dituen printzipio orokorrak errespetatzeari kalterik sortu gabe. Gainera, kontuan hartu behar dugu Estatuko Gobernuak bera zergak aldatzeko hainbat neurri hartzen ari dela, gobernuaren ordezkarien hitzetan "herritarrei egindako ahalegina itzultzeko", eta, bestalde, udala betidanik egon dela aipatu aparteko ordainsaria kentzearen aurka; hortaz, legearen barruan, aparteko ordainsariak ekarri dituen ondorioak arintzen saiatu da.

Horregatik guztiagatik, ezinbestekoa da aldi iragankor honi amaiera emateko formulak bilatzea eta neurriak hartzea, eta neurri horien bitartez zor den ordainsaria langileei osotasunean itzultzea, orain aurreikusten den aurrerakina gerora Estatuko Gobernuak ezar dezakeen konpentsazioarekin osatu ahal izateko moduan, edo, bere kasuan, dagokion aparteko ordainsariaren kontura itzultzeko moduan. Laburbilduz, proposatzen den formularen bitartez, urteko ordainsariak aurreratzea saihestuko litzateke, eta, akordio horretatik aurrera, 2015eko abenduko aparteko ordainsaria eta ondoko urteetakoak sortzapeneko hilabetean ordainduko lirateke, urtean bitan aurreratu behar izateko hala moduzko eragiketa konplexuak egin beharrik izan gabe, eta hori guztia 1929ko abenduaren 16ko 2608 Errege Lege Dekretuaren arabera.



Hortaz, ondoko AKORDIOA hartzea proposatzen da:

LEHENA. Aktiboan dauden eta 2012ko abenduko aparteko ordainsaria jaso ez zuten langileei aipatu aparteko ordainsariaren 44 sortzapen-eguni (% 24,04) dagokien zatia ordaintzea, espedientean ageri den zerrendaren arabera. 2012ko abenduko aparteko ordainsari osoa eta ordainsari gehigarria aitortu ez diren kasuetan, ordainketa zegokion egunen zenbaketara murriztuko da proportzionalki.

Zenbateko hori 2015eko lehenengo seihilekoan ordainduko da, Estatuko 2015erako Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeko hamabigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako baldintzetan, eta horrek uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretuko 2. artikuluko 4. atalean jasotako aurreikuspenen helmena murriztea ekarriko du.

Ordaintzeko datan zerbitzu aktiboan edo antzekoan ez zeuden, edo administrazio publikoko langile izateari utzi zioten langileei, eta 2012ko abenduari zegokion aparteko ordainsaria ordaindu ez zitzaizen langileei, artikuluko honek aipatzen dituen zenbatekoak Ordiziako Udalak ordainduko dizkie, aurrez udaleko langileen zerbitzuari eskaera eginda. Itun hau indarrean sartzean, egoera horren barruan sar litezkeen langileetatik bakarren bat hilda balego, eskaera hildakoaren oinordekoek egin beharko dute zuzenbide zibilaren arabera.

BIGARRENA. 2012ko aparteko ordainsaria jasotzerik izan ez zuten eta aktiboan dauden udal-langileei aurrerakin bat eskatzeko aukera izatea ahalbidetzea. Zenbatekoa 2012ko aparteko ordainsaritik eskuratu gabeko kopuruen baliokidea izango da (aparteko ordainsariaren zenbatekoaren % 75,96), baldintza hauekin:

- * Aurrerakina ordainduko zaie, interesdunak edo enpresa-batzordeak hala eskatuta, aldeztatik langileen batzarrak akordiora iritsita, 2015eko lehenengo seihilekoan, ordainsari hura osorik edo zati batean jasotzeko eskubidea zuten eta aipatu datan aktiboan jarraitzen duten karrerako funtzionario eta lan-kontratu finkoa duten guztiei, eta aldi baterako lan-kontratuak duten langileei, bitarteko funtzionarioei eta behin-behineko langileei, betiere, kontratuaren edo izendapenaren amaiera-data aurrerakina itzultzeko datara iristen bada.
- * Aurrerakina 2017ko apirilaren amaiera aurretik itzuliko da.
- * Aurrerakina itzultzeko datara bitartean onar litezkeen 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren berreskuratze berriak aipatu aurrerakina osorik edo partzialki amortizatzen bideratuko dira, edozein kasutan.
- * Orain xedatu den aurrerakin horrek ez du interesik sortuko, eta gauzazko lansarirako lege ezarrita dagoen zerga-tratamendua edukiko du.



* Zenbateko horiek aurreratuta, langilearekiko lan-harremana 2012ko aparteko ordainsaria osorik itzultzea xedatu baino lehen iraungiko balitz, itzulkin horiek, ofizioz, jasotzeko dauden ordainketei egotz dakizkieke konpentsazio bidez. Sistema hori posible izango ez balitz, edota nahikoa ez balitz, langileak ordaindu gabeko zenbatekoa sartu beharko du udalaren kutxan, eta diru hori exijitu ahal izango du ordenamendu juridikoan aurreikusitako edozein bidetatik, eta, aurrera begirako araudiak hala ahalbidetzen duenean, berriro ere aipatu zenbatekoa langileari itzuli ahal izateari kalterik sortu gabe.

HIRUGARRENA. Akordio edo esku-hartze honen berri ematea udaleko enpresa-batzordeari eta akordioaren eraginpean dauden langile guztiei.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labor-labor zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn

Azaldu du gobernu taldeak konpromisoa hartu zuela kendutako soldata 2015.ean berreskuratzeko. Neurri hau EUDELEk proposatzen du eta gu alde gaude.

Santamaria jn

Galdetu du ea akordio hau legala den.

Kontuhartzaile jn

Erantzun dio bigarren zatia ezetz, legeak ez baitu ahalbidetzen aparteko ordainsari osoa bueltatzea. Udalak aurrekontu egonkortasunaren irizpidea betetzen du, baina existitzen ez den eskubide bat aurreratzea ez da egokia.

Dubreuil jn.

Idazkariaren txostenak Kontuhartzailearen txostenarekin bat egiten duela adierazi du eta honek dio ezin direla ordainsariak aurreratu. Asmoa arrazoizkoa da baina berak ezin du txostenaren aurka egin.

Dubreuil jn.

Puntuak bereizita bozkatzeko eskaera egin du.

Alkate jn.



Batera bozkatuko dela adierazi du. 2012. urtetik negoziatzen ari dira puntu hau.

Santamaria jn.

Murrizketekin ados ez dagoela azaldu du baina txostenak ikusi ondoren abstenitu egingo direla esan du.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 6 (BILDU 6)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 6 (EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

5.- Ordiziako udaleko pertsonalaren galdutako erosketa ahalmena berreskuratzeko ordainsari kontzeptua ezartzeko akordio proposamena

Proposamena

Udaleko langileen ordezkariekin izandako negoziazioen ondorioz eta kontuan izanik 2011-05-16an egindako osoko bilkuran hartutako erabakiak:

- 2011ko ekitaldian adostu ziren akordio gehienak mantentzen dira, giza baliabideak ahalik eta modu egokienean aprobetxatzeko eta horrela, Udaleko aurrekontuko I. kapituluari eragin txikiagoa izateko.
- Jasaten ari garen krisi garai hauetarako Administrazio Zentraletako politikak jarraituz, administrazioetako gastuak modu egokian gauzatzearen inguruan, Ordiziako Udalean aurrera eramaten diren politikak, ahalbidetu dute, Gipuzkoako administrazio publiko ezberdinen adierazle ekonomiko-finantzieroen arabera, eta Udalgidako datuak kontsultatuz (iturburua: Ogasun eta Finantzen Saila) gure



neurriko edo gertueneko udaletako datuak konparatuz, hiritarrei eman beharreko ondasun prestazio eta zerbitzuen kostu ratioak txikiagoak edo merkeagoak direla.

Udalbatza honek, udalaren kudeaketa eta honekin batera pertsonalaren inplikazioa lanean baloratu, aurrekontuko I. kapituluaren jaitsiera bat dakarrela, kontuan izanik, udal kutzak ekonomi osasuntsu daudela et 2015eko apirilaren 17an Udal Idazkariak eginiko txostena eta Udal Kontuhartzaileak eginiko erreparoa ikusirik,

ERABAKITZEN DA

1º. Ordiziako Udaleko langileen alde ordainsari osagarri bat ezartzea, erosmen ahalmenean izandako galera kontzeptuarekin. Ordainketa hau 2015eko apirilean zehar egingo da.

2º. Ordainsari osagarri honen kopurua era linealean ordainduko da, eta kopurua kalkulatzeko, 2014. urteko ordainsariei, hiru urtekoak alde batera utzita, %4ko igoera aplikatuko zaie. Langile bakoitzari dagokion kopurua berariazko osagarrien bestelakoen atalean azalduko da eta kasu guztietan puntu kopuru berarekin haziko da.

3º. Aipatutako berariazko osagarriaren puntu hazkunde hau egonkortu egingo da (urtean 14 aldiz) 2015eko apiriletik aurrera hasita.

4º. Bestalde, Elkarkidetzako ekarpenei buruzko 2011-05-16ko udalbatzako akordioan oinarrituta, ekarpen hauek legeak ahalbidetzen duenean burutuko dira.

5º. Aurreko puntuetan aipatutakoa betetzeko beharrezkoak diren kopuruak ordaintzea agintzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Idazkari jn

Azaldu du proposamen hau ez dela legezkoa, Estatuaren Aurrekontu Orokorren legea urratzen baitu.

Alkate jn

Murrizketen ondorioz langileek galdu duten erosteko ahalmena %18 ingurukoa da. Zuzena da ahalmen horren zati bat berreskuratzea. Hartu genuen konpromisoa betetzera goaz.



Sr.Dubreuil

Idazkariaren txostenean argi azaltzen da. Kontra bozkatuko du. Neurri hau gehien galdu dutenentzako bidegabekoa dela gaineratu du.

Santamaria jn

Dubreuil jaunak azaldutako arrazoiengatik, bere taldeak ere puntuaren aurka bozkatuko duela adierazi du.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 6 (BILDU 6)
Aurkakoak: 6 (EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)
Abstentzioak: 0

Beraz bigarren bozketa egin da. Emaitzak:

Aldekoak: 6 (BILDU 6)
Aurkakoak: 6 (EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)
Abstentzioak: 0

Alkatearen kalitatezko botoari esker, berdinketa desegin, eta proposamena onartu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du.

6.- 2015 ekitaldiko lanpostuen zerrendari lehenengo aldaketa.

Proposamena

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.2 artikulua eta Euskal Funtzio Publikoko Legearen 14. artikulua zehazten duenaren arabera, Udaleko osoko bilkurari dagokio lanpostu zerrenda onartzea, aurrekontuetan aurreikusitako guztiak jaso beharko ditu, funtzionarioak, langile finkoak eta aldi baterako langileak bereiziz.



Aipatutako araudia oinarri harturik, 2014ko abenduaren 18ko Ordiziako Udalbatza Plenoak aparteko bilkurak onartu zuen 2015 urteko ekitaldirako Lanpostuen Zerrenda, aurrekontuetan behar bezala finkatuta.

Ikusita apirilaren 17ko akordio proposamena, Ordiziako Udaleko langileen alde ordainsari osagarri bat ezartzearena, erosmen ahalmenean izandako galera kontzeptuarekin eta ordainketa hau 2015eko apirilean zehar egingo dela. Ordainsari osagarri honen kopurua era linealean ordainduko dela,...eta langile bakoitzari dagokion kopurua berariazko osagarrien bestelakoen atalean azalduko dela eta kasu guztietan puntu kopuru berarekin haziko dela. Aipatutako berariazko osagarriaren puntu hazkunde hau egonkortu egingo dela (urtean 14 aldiz) 2015eko apiriletik aurrera hasita.

Aipatu akordio proposamena onartzeak, Udal langileen lanpostuen zerrenda aldatzea dakartzala.

Hau guztia kontuan izanik, honakoa proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

Lehena.- 2015 urteko ekitaldirako onartutako Lanpostu Zerrenda aldatzea, Udal honen zerbitzura dauden lanpostu guztiak barnean dituen, berariazko osagarriari dagokiona eta aurrekontu-dotazioak dituztela, erabaki honetako ERANSKIN ereduaren dagoen bezala.

Bigarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean dagokion iragarkia argitaratzeko agintzea.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Gai hau mahai gainean geratu da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du.

7.- Ordiziako Udaleko eta San Jose Egoitza Erakunde Autonomoko giza-baliabideak antolatzeke plana».

Proposamena

Ordiziako Udaleko Osoko Bilkuraren 2011ko maiatzaren 16ko erabakiz, udaleko lanpostuen eginkizunen deskribapena onartu zen, horretarako bereziki sortu zen Balorazio Batzordeak eginiko proposamenaren arabera.



Lanpostuen balorazio horretan, kategorizazio eta sailkapen berri bat proposatu zen Plan honetan zerrendatzen diren udal-lanpostu batzuentzat (udaleko langile batzuek betetako funtzioei dagokienez), gerora proposamen hori aplikatu ez bazen ere Udaleko lanpostuen zerrendan eta langile-plantillan.

Zehazki, honako hauek dira lanpostu horiek (Udaleko lanpostuen zerrendan duten deskribapenarekin):

- Gizarte Hezitzailea/Berdintasun Teknikaria (Administrazio Bereziko Eskala; Azpieskala Teknikoa, Teknikari Laguntzailea; C1 Sailkapen Taldea).
- Itzultzailea/Euskara Dinamizatzailea (Administrazio Bereziko Eskala; Azpieskala Teknikoa, Teknikari Laguntzailea; C1 Sailkapen Taldea).
- Kultura-arloko Arduraduna (Administrazio Bereziko Eskala; Azpieskala Teknikoa, Teknikari Laguntzailea; C1 Sailkapen Taldea).
- Kultura-arloko Laguntzailea (Administrazio Bereziko Eskala; Azpieskala Teknikoa; Teknikari Laguntzailea; C2 Sailkapen Taldea).

Goian aipatutako datatik igaro den denboran, egoera bera gertatu da Ordiziako Udaleko beste lanpostu batean, eta haren kategorizazio eta sailkapen berria proposatzen da beraz Plan honetan. Lanpostu hauxe da:

- Udal Mantenimenduko eta Biltegiko Arduraduna (Administrazio Bereziko Eskala; Peoi Kategoria; OAP Sailkapen Taldea).

Bestetik, azaroaren 6ko 12/2014 FORU AGINDUAren bitartez, «Kabia» foru-erakunde autonomoa sortzen da, gizarte-zerbitzuen kudeaketa, prestazio eta exekuziorako.

Agindu horren hitzurreak dioenez, Eusko Legebiltzarraren Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legearen 41. artikulua araberaren arabera, bigarren mailako gizarte-zerbitzuak (22. artikulua 2. atalean arautuak) foru-erakundearen eskumena izango dira (erakunde bakoitzari dagokion lurralde-eremuan), Eusko Jaurlaritzari zuzenean dagozkion zerbitzuak izan ezik, eta 3. artikulua araberaren arabera, foru-erakunde autonomoari dagokio bigarren mailako arretarako gizarte-zerbitzu horien hornitzea. Foru-erakunde autonomoak, gainera, kudeatzeko gomendioko bidez eskaini ahal izango ditu ere lehen mailako arretarako gizarte-zerbitzuak, horien eskumena beste herri-administrazio baten esku dagoenean.

Aipatutako Foru Aginduaren bitartez, Kabiak bere gain har ditzake tokiko erakundeek gaur egun eskaintzen dituzten zerbitzuak.

Horiek horrela, Ordiziako Udalari beharrezkoa iruditzen zaio San Jose Egoitzak eskaintzen duen zerbitzua Foru Aldundiaren esku uztea, Gizarte Zerbitzuen Legea betetzeko eta zerbitzu horrek Udalari sortzen dizkion gastu eta defizit handiak amaitzeko.



Hala eta guztiz ere, maiatzaren 22ko 38/2007 Foru Dekretuaren arabera (mendeko pertsona adindunentzako zerbitzuen kontzertazio-baldintzak ezartzen dituena), zerbitzua Kabia Foru Erakunde Autonomoaren esku utzi aurretik, ezinbestekoa da San Jose Egokitzako langile-taldea egokitzea.

Hala, aurreko paragrafoan aipatutako Foru Dekretua betetzeko, bi lanpostu sortu behar dira San Jose Egoitzan: gizarte-langile lanpostu bat, % 48ko lanaldiarekin, eta psikologo lanpostu bat, % 27ko lanaldiarekin.

Horrela, gaur egun San Jose Egoitzan lan horietan diharduten langileak Ordiziako Udalera itzuliko lirateke lanera.

Horrenbestez, Plan honen bitartez, goian aipatu diren Ordiziako Udaleko lanpostuak aldatu eta bete egin nahi ditugu, barne-promozioko prozeduren bidez, aplikatu daitezkeen araudiaren arabera. Horrekin batera, aldaketa horiek Udaleko lanpostuen zerrendan eta langile-plantillan sartzeaz batera, gaur egungo postuen "amortizazio" izaera zehaztuko da.

San Jose Egoitzari dagokionez, gizarte-langile/animatzaile soziokultural lanpostu bat sortzea proposatzen dugu, lan-kontratuduna (lanaldiaren % 48 gizarte-langile eginkizunetan eta % 52 animatzaile soziokultural eginkizunetan), eta psikologo lanpostu bat, lan-kontratuduna ere bai, % 27ko lanaldiaz.

Gizarte-langile/animatzaile soziokultural lanpostua murriztutako barne-promozioko bidez bete nahi dugu, gaur egun egoitzan gizarte-animatzaile zereginetan ari den langilearen bitartez (sortzen den lanpostu berrirako behar den tituluaren jabe da). Gainera, gaur egungo gizarte-animatzaile lanpostua amortizatzea proposatzen dugu, % 52ko ehunekoan; horrela, % 48ko ehunekoan geldituko litzateke, sortzen den gizarte-langile/animatzaile soziokultural lanpostua bete ondoren, aipatutako barne-promozioko prozedura bitartez.

Giza-baliabideak antolatzeko plan honek, bestetik, Ordiziako Udaleko droga-mendekotasun teknikariaren lanpostua amortizatzea proposatzen du, gaur egun % 26ko lanaldia duen lanpostua. Udaleko aurrekarietan jasota eta akreditatuta dagoenez, gaur egun droga-mendekotasunen zerbitzua jardunik gabe dago, eta bere garaian lanpostu honetarako izendatu zen bitarteko funtzionarioa San Jose Egoitzari atxikita dago, psikologo-lanetan.

Animatzaile soziokultural (% 48ko lanaldia) eta psikologo (% 27ko lanaldia) lanpostuak dagokion unean beteko dira, dagozkion izendapenen bitartez, meritu-, gaitasun-, berdintasun- eta publizitate-printzipioetan oinarritutako prozeduraren ondoren. Lanpostu horiek behin-behinekoz beteko dira, baldin eta aplikagarria den araudiak behin betiko izendapenen edo izendapen finkoen bidez betetzea galarazten badu.

Aurretik aipatutako neurri guztiak gorabehera, lanpostu horiek barne-promozioko prozeduren bitartez bete arte, funtzio publikoko araudiak lanpostuak betetzeko ezartzen duen prozeduraren baten bidez bete ahal izango dira.

Plan honek aintzat hartzen ditu aplikagarria den araudiaren aginduak, 2015ko Estatuko Aurrekontu Orokorren abenduaren 26ko 36/2014 Legeak ezartzen dituenak bereziki. Izan ere, lehenik eta behin, lege horren 20. Bi artikulua araberaz, 2015. urtean, sektore publikoko langileen ordainsariek ez dute inolako gehikuntzarik izango 2014ko abenduaren 31n indarrean dauden ordainsariei dagokienez, aintzat harturik bi konparazio-aldietarako homogeneotasuna, bai langile-kopuruei dagokienez bai antzintasunari dagokienez. Eta 20. Zazpi artikulua araberaz, *"aurreko ataletan ezarritakoa gorabehera, ez dira baztertzekoak ere izaera berezi eta ezohiko ezinbestekoak gerta daitezkeen ordainsari-egokitzapenak, lanpostuen edukiagatik, programa bakoitzari esleitutako langile-kopuruaren aldaketagatik edo ezarritako helburuen betetze-mailagatik"*. Era berean, barne-promozioko neurri bat denez, ez du langile berriak hartu beharrik eskatzen; aitzitik, enplegatu publikoek karrera profesionalerako duten eskubidea gauzatea ahalbidetzen du, langile finkoen kopurua handitu behar izan gabe.

Aipatutako lanpostuak betetzeko, dagoeneko esan dugun moduan, barne-promozioko prozesu bat jarri behar da martxan, eta ezinbestekoa da giza-baliabideak antolatzeke plan hau onartzea horretarako.

Enplegatu publikoaren Oinarrizko Estatutuko hirugarren xedapen iragankorraren arabera, dagozkion tituluak dituzten C1 Azpitaldeko funtzionarioek A Taldera sartzeko promozioan parte hartu ahal izango dute, B Talde berrietik igaro behar izan gabe, Estatutu horren 18. artikuluan adierazitakoaren arabera.

EAEko Funtzio Publikoaren Legeak, 16. xedapen gehigarrian, barne-promozioko deialdiak egiteko aukera jasotzen du esplizituki, lehiaketa-oposizio bidez, eremu funtzional bereko D taldetik C taldera igarotzeko.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 69.1 artikulua honako hau dio:

"Herri Administrazioetako giza-baliabideak planifikatuta, aurrerapausoak eman nahi dira, batetik, zerbitzua ematerakoan eraginkortasuna lortzeko, eta, bestetik, erabilgarri dauden baliabide ekonomikoak kudeatzerakoan eragimenez jarduteko. Horretarako, langile-kopurua egokitu behar da, langileak hobeto banatu, ondo prestatu eta lanbide-sustapena eta mugigarritasuna eskaini. Herri Administrazioek giza-baliabideak antolatzeke planak onartu ahal izango dituzte, plan horien barruan, besteak beste, honako neurri hauek hartuta:

d) Barne-promozioko eta langile-prestakuntzako neurriak hartu behar dira, eta nahitaezko mugigarritasunekoak ere bai, Estatutu honen titulu honetako III. kapituluaren ezarritakoari jarraituz".

Bestetik, urriaren 13ko 190/2004 Dekretuak, euskal herri-administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzen duena, eta aplikagarria dena lehenengo artikuluan (eranskina) zehaztutako

aplikazio-eremuan, honako hau dio 41.1 eta 41.2 artikuluetan:

"(...) Euskal herri administrazioek giza-baliabideak arrazionalizatzeko programak onar ditzakete, beren burua antolatzen duten gaitasunaren arabera eta langileen ordezkariekin negoziatu ondoren. Programa horiek beren berezitasunei egokituko zaizkie, eta funtzionarioei nahiz lan-kontratadun langileei buruzkoak izango dira.

Arrazionalizazio-programek beren eraginpeko alorrean giza-baliabideak ahalik eta ondoen erabiltzeko garatu behar diren jarduerak hartuko dituzte batera. Baliteke jarduera horiek eragina eta ondorioa izatea, besteak beste, honako gai hauetan: langileen plantillen tamaina eta beharrezanen plangintza, lanpostuen sailkapena ordainsarrietan dagozkion ondorioak aintzat harturik, lanpostuen hautaketa baita betetzea ere, langileen promozioa eta igoera, eta prestakuntza (...)".

42. artikulua arabera, barne-promozioko neurri espezifikoak giza-baliabideen arrazionalizazio-programetarako neurrietako bat izan daitezke.

Gainera, martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuaren 2. artikulua arabera (1.3 artikulua arabera izaera subsidiarioz aplikatu behar den dekretua), Giza Baliabideen Plan Integralek honako hauek zehaztuko dituzte: langileen arloan bete beharreko helburuak; helburu horietarako egokizat hartzen diren giza-baliabideak eta haien egitura; hasierako egitura helburu den egitura bihurtzeko behar diren neurriak; eta horretarako behar diren egintzak, mugikortasunean, prestakuntzan eta promozioan bereziki.

Lehentasuna eman nahi zaio dagoeneko Udalean lanean ari diren langileen barne-promoziolari, txanda irekiko hornidura bigarren maila batean utziz. Udal langileen zalantza, kezka eta prozesua ahalik eta azkarren amaitzeko nahiak prozedura lehenbailehen martxan jartzera bultzatzen gaituzte. Alde horretatik, honako hau azpimarratu nahi dugu: barne-promozioko parte hartuko duten hautagaien plaza berrietan beteko luketen eginkizun bera betetzen dutela gaur egun.

Bestetik, barne-promozioko murriztu nahi dugu; hau da, langile bakoitzak gaur egun dituen funtzioei dagokien plaza bete ahal izatea soilik. Hots, gaur egun Plan honek amortizatu edo iraungi beharrezkotzat dituen postuak betetzen dituzten enplegatuetara mugatutako barne-promozioko izango litzateke. Hautagaien batek prozesua gaindituko ez balu, edo bere burua aurkeztuko ez balu, gaur egungo postuan jarraituko luke, eta sortzen diren postuak betetzeke geldituko lirateke. Programa honen helburua, beraz, Ordiziako Udalaren balorazio-prozesuko ondorio behinenetako bat betetzea da, eta agerian gelditu den egoera desegokiari irtenbidea bilatzeko oinarriak ezartzea, San Jose Egoitzako langile-taldeari dagokionez aipatu diren arazoak konpontzeaz gainera. Horiek horrela, martxan jarri behar dira dagozkion barne-promozioko prozesuak, enplegatu horien eginkizunei dagokien maila aitortzeko.

Bi zati bereizi behar dira programa hau onartzeko prozeduran:



Alde batetik, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren apirilaren 12ko 7/2004 Legearen 37.1.c) artikulua araberako, giza-baliabideen plangintzarako tresnak negoziatu behar dira.

Alde horretatik, plan hau negoziatu egin da langileen ordezkariekin, 2015eko apirilaren 16an eginiko negoziazio-mahaiaren saioan.

Bestetik, Osoko Bilkura da arrazionalizazio-plan honetan eskumena duen organoa: alde batetik, Toki Araubidearen Oinarrizko arautzen dituen 7/1985 Legearen 22. artikulua araberako, Udal Osoko Bilkurari dagokiolako lanpostuen zerrenda eta arrazionalizazio-plan hau onartzea; bestetik, plan honek izaera arautzailea duelako.

XEDAPEN OROKORRAK

Aurretik aipatu diren lanpostuak aldatzen dira, giza-baliabideak hobeto erabiltzeko.

Arrazionalizazio-plan honen helburua da plaza berriak sortu eta betetzea, eta lanpostuen zerrendan desagertu beharrekoak zehaztea, dokumentuaren espazio-atalean azaldu den moduan.

- Lanpostuak sortzea.
- Ordiziako Udaleko funtzionarioei erreserbatutako lanpostu hauek sortzen dira:
 - Gizarte Hezitzailea/Berdintasun Teknikaria (Administrazio Bereziko Eskala; Azpieskala Teknikoa, Erdi-mailako Teknikaria; A2 Sailkapen Taldea).
 - Udal Mantenimenduko eta Biltegiko Arduraduna (Administrazio Bereziko Eskala; Ofiziala Kategoriatik; C2 Sailkapen Taldea).
 - Euskara Teknikaria/Arduraduna (Administrazio Bereziko Eskala; Azpieskala Teknikoa, Goi-mailako Teknikaria; A1 Sailkapen Taldea).
 - Kultura, Gaztedia eta Hezkuntza arloko arduraduna (Administrazio Bereziko Eskala; Azpieskala Teknikoa, Goi-mailako Teknikaria; A1 Sailkapen Taldea).
 - Kultura-arloko Administrazioa (Administrazio Orokorreko Eskala; Administrazio Azpieskala; C1 Sailkapen Taldea).
- Aldiz, San Jose Egoitza Erakunde Autonomoko lan-kontratadun langileei erreserbatutako lanpostu hauek sortzen dira:
 - gizarte-langilea/animatzaile soziokulturala (A2/B Sailkapen Talde Bikoitza). % 100eko lanaldia (% 48 gizarte-langile eginkizunetan eta % 52 animatzaile soziokultural eginkizunetan).



- Psikologoa (A1 Sailkapen Taldea). % 27ko lanaldia.
- Lanpostuak amortizatzea.
- Ordiziako Udala:

Honako lanpostu hauek amortizatuko dira, "1. Lanpostuak sortzea" atalean aipatzen diren lanpostuak bete ondoren (barne-promozioko prozeduraren bidez, hala dagokionean):

- Gizarte Hezitzailea/Berdintasun Teknikaria (Administrazio Bereziko Eskala; Azpieskala Teknikoa, Teknikari Laguntzailea; C1 Sailkapen Taldea).
- Udal Mantenimenduko eta Biltegiko Arduraduna (Administrazio Bereziko Eskala; Peoi Kategoria; OAP Sailkapen Taldea).
- Itzultzailea/Euskara Dinamizatzailea (Administrazio Bereziko Eskala; Azpieskala Teknikoa, Teknikari Laguntzailea; C1 Sailkapen Taldea).
- Kultura-arloko Arduraduna (Administrazio Bereziko Eskala; Azpieskala Teknikoa, Teknikari Laguntzailea; C1 Sailkapen Taldea).
- Kultura-arloko Laguntzailea (Administrazio Bereziko Eskala; Azpieskala Teknikoa, Teknikari Laguntzailea; C2 Sailkapen Taldea).

Bestetik, ondoren aipatzen den postua amortizatuko da, San Jose Egoitzan sortu beharreko psikologo-postua bete ondoren, dagokion unean, merit-, gaitasun-, berdintasun- eta publizitate-printzipioetan oinarritutako prozedura ondoren egin beharreko izendapenen bitartez. Lanpostu hau behin-behinekoz beteko da, baldin eta aplikagarria den araudiak behin betiko izendapenen edo izendapen finkoen bidez betetzea galarazten badu.

- Droga-mendekotasunen arloko teknikaria (Administrazio Bereziko Eskala; Azpieskala Teknikoa, Goi-mailako Teknikaria; A1 Sailkapen Taldea).

Horiek horrela, aipatutako lanpostuen "amortizazio" izaera zehaztuko da, lanpostuen zerrendetan eta plantilla organikoetan.

2.2. San Jose Egoitza Erakunde Autonomoa:

Ondoren aipatzen den lanpostua amortizatuko da, "1. Lanpostuak sortzea" atalean aipatzen diren lanpostuak bete ondoren (barne-promozioko prozeduraren bidez, hala dagokionean):



Gaur egungo gizarte-animatzaile lanpostua % 52ko ehunekoan amortizatuko da (% 48ko ehunekoan geldituko da), sortzen den gizarte-langile/animatzaile soziokultural plaza bete ondoren (barne-promozioko prozeduraren bidez, hala dagokionean).

- Lanpostuak betetzea.

Sortzen diren lanpostu guztiak, animatzaile soziokultural (% 48ko lanaldia) eta psikologo (% 27ko lanaldia) postuak izan ezik, murriztutako barne-promozioko prozeduren bitartez beteko dira.

Animatzaile soziokultural (% 48ko lanaldia) eta psikologo (% 27ko lanaldia) postuak dagokion unean beteko dira, meritu-, gaitasun-, berdintasun- eta publizitate-printzipioetan oinarritutako prozedura ondoren egingo diren izendapenen bitartez. Lanpostu horiek behin-behinekoz beteko dira, baldin eta aplikagarria den araudiak behin betiko izendapenen edo izendapen finkoen bidez betetzea galarazten badu.

4. Plantilla/Lanpostuak.

Plan honek jasotako neurriak gauzatzeko, plantilla organikoak eta lanpostuen zerrendak aldatu beharko dira.

Tresna horietan, beharrezkoak diren eta indarreko araudiak eskatzen dituen ezaugarriak eta gainerako zehaztapenak adieraziko dira, sortzen diren lanpostuen balorazioa egin ondoren.

ERABAKI-PROPOSAMENA

LEHENENGOA: «Ordiziako Udaleko eta San Jose Egoitza Erakunde Autonomoko gizabaliabideak antolatzeke plana» hasieraz onartzea.

BIGARRENA: Plana jendaurrean edukitzea 30 laneguneko epean, dagozkion iragarkiak jarrita Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko iragarki-taulan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri ematea Planak jasotako neurrien eraginpean dauden langileei eta langileen ordezkariiei.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labor-labor zerrendatzen direnak izan dira:

Dubreuil jn.



Esan du ezin duela erabakiaren alde bozkatu ez duelako bat egiten Drogomenpekotasun teknikari postua amortizatzeko proposamenarekin, nahiz eta gainerakoan planarekin ados egon.

Maiza andrea

Azaldu du teknikariak lehen arlo gehiago ukitzen zituen proiektu batean lan egiten zuela, baina postua ondoren edukirik gabe geratu zela. Gaiaz hausnartzen ari gara une honetan, baina ez Ordizian bakarrik. Etorkizunean sail honen lana zein izan behar duen erabaki nahi dugu.

Dubreuil jn.

Erantzun dio esanez edukia udal politikaren araberakoa dela. Adikzio Legearen baitan ez dira soilik drogak sartzen, beste adikzio batzuk ere aipatzen dira. Zein langilerekin egingo dugu lan hori legeak ez badigu lanposturik sortzen uzten?

Maiza andrea

Ongizateko teknikariek gobernu taldearen analisiarekin bat egiten dutela baieztatu du.

Dubreuil jn.

Galdetu du ea planak aurrekontuak aldatzea dakarren.

Kontuhartzaile jn.

Erantzun dio esanez dagoen kredituarekin nahikoa izango dela. Baina zenbat kostatuko zaigun jakiteko kalkulu zehatzik ez dago eta 2017 urtetik aurrera arazoak egon daitezke.

Dubreuil jn.

Planaren gastua zein izango den ez jakitea, erabakiaren kontra egiteko bigarren arrazoia da.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 6 (BILDU)

Aurkakoak: 1 (PSE-EE (PSOE))

Abstentzioak: 5 (EAJ)



Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

8.- Ordiziako udaleko langileen lan baldintzak arautzen dituen hitzarmena aldatzea. (Udalhitz)

Proposamena

ORDIZIAKO UDALEKO LANGILE FUNTZIONARIOEN LAN-BALDINTZEN HITZARMENAK (UDALHITZ) ALDATZEA

ELA Sindikatuak (langileen ordezkariak) 11-04-08an langile funtzionarioen (bitartekoak barne) lan-baldintzak negoziatzeko mahaia osatzeko eskaera formala egin zuen, udal bulegoetan idatzi zigilatua aurkeztuta.

Epealdi horretan hainbat negoziazio luze izan ditugu, eta negoziazio horien emaitza izan da 2014-04-16an Langileen Batzordeak eta udal arduradunek lortutako akordioa. Negoziatio mahai horretan Ordiziako Udaleko funtzionarioen ordezkari guztiak egon dira eta horiek aho batez akordioaren aldeko botoa eman dute.

Hori betez eta apirilaren 12ko Enplegatutako Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren 7/2007 Legearen 31. artikulua araberan, eta Ordiziako Udaleko langileen lan-baldintzak hobetzeko helburuarekin

HONAKO HAU ERABAKI DA:

LEHENA.- Ordiziako Udaleko funtzionarioen lan-baldintzen hitzarmenak (Udalhitz) aldatzea onartzea, erabaki honen eranskin gisa agertzen dena.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Ordiziako Udaleko langileen ordezkarietara.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Sr.Santamaria



Gaia mahai ganean uzteko eskatu du, osatzear dagoen Udalbatza berriak aztertu dezan. Legearen kontra doaz atal batzuek. Gainera, ez da egokia ezberdinak sortzea herrien artean, hitzarmen bakarra izan beharrean.

Dubreuil jn.

Txostenaren arabera, araudia urratzen duten alderdiak daudela esan du. Nahiz eta hala nahi izan negoziazioan ez dutela parte hartu esan du. Puntu hau beste osoko bilkura batera atzeratzeko eskatu du testua oso mardula delako. Bestela abstenitu egingo da.

Alkate jn.

Hitzarmena urte askotan egon da indarrean. Dokumentua denok ezagutzen dugu. Proposamenaren funtsa Madrilgo murrizketei aurre egitea da eta hitzarmena hobetzea. Bozkatu egin behar da. Batzordean ez zen horrelako planteamendurik egin. Ondo deritzogu baldintzen hobetzeari eta errespetu bat zor diegu negoziazioan parte hartu dutenei.

Dubreuil jn.

Galdetu du ea ondorengo aurrekontuetan hitzarmenaren gastua zein izango den kalkulatu den.

Kontuhartzaile jn.

Ezetz erantzun dio, baina ez duela uste gaur egungo egoerarekiko elementu bereizgarri asko egongo denik.

Alkate jn.

Hitzarmenean jasotzen dena dagoeneko Udalean aplikatzen dela baieztatu du.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 6 (BILDU)

Aurkakoak: 1 (PSE-EE (PSOE))

Abstentzioak: 5 (EAJ)

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.





Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

9.- Gipuzkoa lurralde historikoko udalerrietan "lurraldekar" proiektu pilotua martxan jartzeko lankidetzarako Protokolo orokorra.

Proposamena

LANKIDETZARAKO PROTOKOLO OROKORRA, GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO UDALERRIETAN «LURRALDEKAR» PROIEKTU PILOTUA EZARTZEKO BILDU DIRA

LARRAITZ UGARTE ZUBIZARRETA andrea, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuko foru diputatua.

JAIONE ISAZELAIA IGARTUA andrea, Bergarako Udaleko alkatea.

JUAN CARLOS IZAGIRRE HORTELANO jauna, Donostiako Udaleko alkatea.

LUIS INTXAUSPE AROZENA jauna, Hernaniko Udaleko alkatea.

JOSE ANTONIO SANTANO CLAVERO jauna, Irungo Udaleko alkatea.

IBAI IRIARTE SAN VICENTE jauna, Tolosako Udaleko alkatea.

OIHANE ZABALETA MUJICA andrea, Urretxuko Udaleko alkatea.

MIKEL BIAIN BERRAONDO jauna, Oñatiko Udaleko alkatea.

IGOR EGUREN IZAGIRRE jauna, Ordiziako Udaleko alkatea.

JUAN LUIS ILLARRAMENDI ROTETA jauna, Zarauzko Udaleko alkatea.

Parte hartzaileek elkarri aitortzen diote lankidetzarako protokolo orokor hau sinatzeko behar den lege gaitasuna, eta horretarako

AZALTZEN DUTE

I. Protokolo hau sinatzen duten udal administrazioek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuaren bitartez, garraio gaietan dituzten eskumenak erabiliz eta eginkizunak gauzatuz, mugikortasun iraunkorra, ingurumena eta erabilgarri dauden baliabideen erabilera eraginkorra sustatu nahi dute.

II. Lortu nahi den hiri ereduak garraio publikoa sustatuko du, eta kaleak oinezkoentzat jartzea eta bizikleta bidezko garraioa erraztea ere bai, eta, horrekin batera, ibilgailu motorduna partekatzea ere bultzatuko du *-car sharing-*, hiri ingurunean ibilgailu motordun gutxiago ibil dadin. Hala, «Lurraldekar»



proiektua esperientzia pilotu bat da, ibilgailu partikularra erabili ordez partekatzea bultzatuko duena, ibilgailuak egoera jakin batzuetan dituen onurei uko egin beharrik gabe.

III. Parte hartzaileen ustez, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mugikortasun iraunkorra nola lortu aztertzeko bidean aurrera pauso garrantzitsua da udalerrri sinatzaileetan «Lurraldekar» proiektu pilotua ezartzea Aldundiaen laguntzarekin eta lankidetzarekin.

IV. Parte hartzaileen artean ez daude Gipuzkoako udalerrri guztiak, eta proiektuaren azken helburua ahalik eta udalerrri gehien hartzea denez, parte hartzaile guztien nahia da protokolo orokor honetako itunak sinatu nahi dituen edozeini mugarik ez jartzea. Hala, agiri honetan ez dauden udalerrriek atxikitzeko aukera izango dute, horretarako ezarritako baldintzak betez.

V. Arrazoi horiek guztiak kontuan hartuta, eta parte hartzaileek egin dituzten bileren ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bergarako, Donostiako, Hernaniko, Irungo, Urretxuko, Tolosako, Oñatiko, Ordiziako eta Zarauzko udalek «Lurraldekar» proiektu pilotua ezartzeko lankidetzara esparru bat sortu nahi dute. Horregatik, eta azaldutako helburuak formalizatu eta betetzeko asmoz, aipatu ditugun administrazio publikoek, elkar adostuta, lankidetzarako protokolo orokor hau formalizatzen dute (aurrerantzean protokoloa), estipulazio batzuen arabera eta lege xedapen hauek kontuan hartuta: 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearena (6.4 artikulua), 1985eko apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzekoa (57. artikulua).

ESTIPULAZIOAK

Lehenengoa.- Protokoloaren xedea.

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bergarako, Donostiako, Hernaniko, Irungo, Urretxuko, Tolosako, Oñatiko, Ordiziako eta Zarauzko udalek konpromisoa hartzen dute nor bere eskumen eta eginkizunen arabera, «Lurraldekar» proiektu pilotua bultzatzeko, protokolo honetan ezarri den esparru orokorraren arabera.

Hala, protokolo hau sinatzen duten administrazio publiko eta entitateek elkar hartzen dute «Lurraldekar» proiektu pilotuaren ezarpena bultzatzeko behar diren ahaleginak egiteko borondatean, helburu hori lortzeko behar diren barruko nahiz kanpoko jarduketak eginez.

Protokolo hau marko orokorra da, administrazio publikoek elkarren arteko interesekoa den gai batean lankidetzara garatzeko metodologia finkatzen baitu, eta erakunde horiek izango dituzten jarduketa konpromisoak jasotzen baititu; gainera, izaera orokorreko markoa izanik, «Lurraldekar» proiektu pilotuaren ezarpen osoari aplikatu ahal izango zaio.

Bigarren.- «Lurraldekar» proiektu pilotuaren definizioa.



«Lurraldekar» proiektua, Gipuzkoako Lurralde Historikoan egiten den *car sharing* esperientzia pilotua da, eta horren helburua da ibilgailu motordunak partekatuta erabiltzea eta, hartara, ibilgailu horiek lurraldeko hiri eta herrietan duten eragin negatiboa gutxitzea, eta ibilgailu motordunaren erabilera inteligente eta eraginkorra bultzatzea.

Horretarako, ibilgailua partekatzeko behar diren bitarteko eta baliabideak jarriko ditu Foru Aldundiak: interesatuei eskueran jarriko zaie jabetzan ibilgailua edukitzearen alternatiba praktiko, eraginkor eta ekonomiko bat. Hala, erabiltzaileek, aldez aurretik erreserbatuta, ibilgailu bat erabili ahal izango dute astean 7 egunetan, 24 orduz, erabilitako distantzia eta denboraren arabera ordainduko dutena. Erregaia, zergak eta aseguruak prezioan sartuta egongo da.

Car sharing zerbitzuaren funtzionamendua (zer ibilgailu dauden eskura, erreserba, erabilera denbora, ordainketa) aplikazio baten bidez izango da, web orri ireki batetik ordenagailu batera edo bestelako gailu mugikor inteligente batera (*smart phone, tablet, etab.*) deskargatuta.

Hirugarrena.- Alderdiek garatu beharreko jarduketak.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuari dagokio *car sharing* zerbitzua abiaraztea, mantentze lanak egitea eta zerbitzuaren aplikazioa kudeatzea, eta interesa duten erabiltzaile guztien eskueran jarri beharko du. Jarduketa horretan sartuko da *car sharing* zerbitzuaren publizitate kanpainak egitea eta erabiltzaileei arreta ematea.

Protokoloa sinatzen duten udalerriek, hartu nahi duten konpromiso mailaren arabera, burutu ahal izango dituzte jarduketa hauek:

- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga hobariak aplikatzea udalen eskumeneko mugartean erabilera partekaturako izango dituzten ibilgailuei, betiere indarrean dagoen arautegiari jarraituz.
- Udal mugartean dituzten aparkaleku mugatuko zonetan indarrean dauden tarifak ordaintzeko salbuespena edo hobariak.
- Partekatuta erabiltzeko ibilgailuentzat aparkaleku bereziak jartzea.
- Proiektuaren zerbitzura jartzea kudeaketa, mantentze lan edo artapen lanak egiteko behar diren langileak eta materialak.
- Udal jabetzako ibilgailuak proiektuaren arabera jartzea.

Laugarrena.- Egutegia.

Aldeek uste dute proiektua ezarrita egongo dela 2015eko bigarren hiruhilekoan.



Proiektua gauzatzeko egin beharreko urrats zehatzak erabakitzeke, erakunde arteko batzorde bat eratuko da, protokolo honen erakunde sinatzaile bakoitzaren ordezkari banaz osatua.

Egin beharreko orok, gastua sortu ez gero, aurrekonturen estalpena izan beharko du.

Bosgarrena.- Protokolora atxikitzea.

Espresuki erabakitzen da protokoloa irekia izatea eta, ondorioz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko gainerako herriak atxiki ahal izango dira, Gipuzkoako Foru Aldundiari baimena eskatu ondoren. Aldebakarreko atxikipen gutun bat aurkeztuko dute, protokoloari erantsiko zaiona eta han adieraziko dute espresuki eta oso-osorik onartzen dutela protokoloak dioena. Esan bezala, udalak Gipuzkoakoak izan beharko dute.

Seigarrena.- Protokoloaren jarraipena.

Aldeek Gipuzkoako Foru Aldundiari enkargatzen diote, eta honek espresuki onartzen du, protokoloa betetzearen jarraipena egitea. Ardura hauek izango ditu zehazki:

- a. Protokoloa eta bederatzigarrenen estipulazioan aurreikusitakoaren arabera sina litezkeen lankidetzak hitzarmenak betetzen direla zaintzea, eta interpretazioari, betetzeari eta gauzateari buruz sor daitezkeen zalantzak argitzea.
- b. Protokoloaren arabera egin behar diren analisien emaitzak aztertzea eta gainerako parte hartzaileei azterketaren edukiaren berri ematea.
- c. Proiektuaren ezarpena koordinatzea.
- d. Parte hartzaileek barruan egin behar dituzten jarduketak modu koordinatuan egin daitezkeen erraztea.
- e. Gipuzkoako Lurralde Historikoko gainerako udalak protokoloari atxiki daitezkeen bultzatzea.
- f. Proiektua erabat ezartzeko jarduketak, barrukoak nahiz kanpokoak, azaltzen diren egutegi bat egin eta bete dadin sustatzea.

Zazpigarrena.-Protokoloa indarrean sartzea eta izango duen iraupena.

Protokoloa aldeek sinatzen duten egunean sartuko da indarrean eta epemugarik gabekoa da, bere xedeak benetan betetzen dituen bitartean.

Zortzigarrena.-Resolución de Protocolo y separación del mismo.

Protokoloa arrazoi hauengatik desegingo da:

- alderdien arteko berariazko erabakia
- Aldeetako edozeinek formulatutako protokoloaren salaketa, beste alde batek hitzarmenaren indarrez bere gain hartutako obligazioak bete ez izanean oinarritua.

Aldeek beren borondatez utz dezakete protokoloa. Horretarako, erabakiak baliozkoa izan beharko du eta Gipuzkoako Foru Aldundiari alde zurretik jakinaraziko zaio gutxienez 30 egun natural lehenago.

Bederatzigarrena.- Lankidetzaren hitzarmenak.

Aldeek behar diren lankidetzaren hitzarmenak sinatuko dituzte protokolo hau gauzatzeko, proiektua behar bezala ezartzeko eta horrekin zerikusia izan dezaketen beste jarduketak batzuetarako. Protokolo hau marko orokorra izanda, hitzarmenetan zehaztuko dira administrazio publiko eta erakunde afektatu bakoitzak zehazki zer jarduketa egin behar duen eta zer eskubide eta obligazio dagozkion.

Hamargarrena.- Araubide juridikoa.

Protokolo honek izaera administratiboa du, eta aplikatuko zaio 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoarenak eta Administrazio Prozedura Erkidearenak 6.4. artikuluan aurreikusten duena.

Ezarritakoarekiko adostasun frogaren gisa, ekitaldian agertutako pertsonen lankidetzarako protokolo orokor hau sinatzen dute, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegiturarako foru diputatua	Hernaniko alkatea Luis Intxauspe Arozena
Larraitz Ugarte Zubizarreta	
Bergarako alkatea	Donostiako alkatea
Jaione Isazelaia Igartua	Juan Carlos Izagirre Hortelano
Irungo alkatea	Urretxuko alkatea
José Antonio Santano Clavero	Oihane Zabaleta Mujika
Tolosako alkatea	Oñatiko alkatea
Ibai Iriarte San Vicente	Mikel Biain Beraondo
Ordiziako alkatea	Zarauzko alkatea
Igor Eguren Izagirre	Juan Luis Illarramendi Roteta

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Asenjo in

Azaldu du proposamena. Horrelako proiektuak beste herrialde batzuetan badaude jada. Hau Belgikatik ekarria da eta ohore bat da hitzarmenean egotea. Ez zen udalbatzarretik pasa behar baina garrantzia emateko ekarri dugu.



Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 6, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



10.- Goierriin indarkeria jasaten duten emakumeen arreta egoki eta koordinaturako protokoloa onartzea.

Proposamena

Emakumeen aurkako indarkeriak gaur egungo jendarteko arazo lazgarrienetako bat izaten darrai, oraindik ere. Giza Eskubideen urraketa onartezina da, izan ere, emakumeen duintasunaren eta segurtasun fisiko eta emozionalaren aurkako eraso larria da.

Bortizkeriaren jatorria estrukturala da eta horri aurre egiteko jarduera politikak emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko asmoz abiatutako politiketan txertatu behar dira.

Goierriin genero-indarkeriako 339 kasu atzeman dira 2008tik 2013ra bitartean.

Indarkeriari aurre egiteko hainbat neurri bideratu dira bai EAEn eta bai estatutan, azken urteetan.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 legearen 62.3 artikulua dio foru eta toki-administrazioek lankidetzaz hitzarmenak eta herri protokoloak sustatu behar dituztela eta horiek garatu tokian tokiko errealitatera egokitzeko.

Bestalde, Emakunde abiatutako VI. Berdintasun Planaren 8.2.2 helburu operatiboak honako xedea du; emakumeen aurkako indarkeria kasuetarako prebentzio eta arretarako protokoloen estaldura duen biztanle-kopurua handitzea eta protokoloak egoera ezberdinetara egokituta egotea.

Horrez gain, Ordiziako II. Berdintasun Planaren 6.2.1 ekintzak genero-indarkeria kasuen arretarako zerbitzuen arteko koordinazio protokoloa egin eta horren funtzionamendu egokirako egiturak finkatzea aurreikusten du.



Protokoloa egiteko proiektuan Goierriko 18 udalerriek hartu dute parte. Egitasmoa 2013 eta 2014 bitartean garatu zen eta hainbat urrats eman ziren hori gauzatzeko; egoeraren diagnostikoa egitea, eragileei ormazioa eskaintzea eta kaltetuen arretan eta indarkeriaren prebentzioan diharduten zerbitzu eta erakundeen protokoloaren behin betiko proposamena egitea.

Hori guztia dela, eta 2015eko martxoaren 31n egindako Berdintasun Delegazioko aldeko onarpenarekin, Plenorako ondorengo AKORDIO PROIEKTUA onartzea proposatzen da:

ORDIZIAN (ETA GOIERRIN) BORTIZKERIA JASATEN DUTEN EMAKUMEEN ARRETA ZUZENA
ETA KOORDINATURAKO PROTOKOLOAREN SINADURA ONARTZEA

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 6, PSE-EE (PSOE)1,EAJ 5)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz bigarren bozketa egiten da eta hau Alkate jaunaren kalitatzeko botoarekin onartzen da.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

11.- Polizia eta larrialdietako euskal akademiaren eta ordiziako udalaren arteko lankidetzaren hitzarmena, tokiko poliziaren oinarrizko eskalako bitarteko agenteentzako lan-poltsa sortzeko.

Proposamena

BILDU DIRA

Alde batetik, Malentxo Arruabarrena Julián, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako Zuzendari Nagusia, urtarrilaren 8ko 68/2013 Dekretu bidez izendatua, (urtarrilaren 16ko 11. EHAO), Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia Organismo Autonomoaren izenean eta hura ordezkatzuz, EAeko Segurtasun Publikoko Sistema Antolatzen duen ekainaren 28ko 15/2012 Legeko 20. eta 26. artikuluek esleitzen dioten eskumenarekin bat.

Bestetik, Igor Eguren Izagirre, Ordiziako alkate jauna, hori ordezkatzuz.

Bi alderdiek, duten ordezkartzarekin bat, dagozkien eskuduntzetan jardunez eta elkarri ordezkartza horretatik ondorioztatzen diren ahalmenak errekonozituta,

AZALDU DUTE

LEHENIK.- Jarduten ari diren bi administrazioak jabe direla toki mailan tokiko poliziaren oinarrizko eskalako agente-plazak bitarteko-erregimenean estaltzeak eragiten dituen arazoez. Halakoak estaltzea beharrezkoa izaten da bai oporraldietan, oro har, udan, edota aurrekusi ezinezko baldintzetan edo bestelakoetan, eta nolana ere bitarteko agente horiek kontratatu behar izaten direla dagozkien funtzioak betetzeko.

BIGARRENIK.-Arazo horri ondo helduko bazaio, aipatutako bi aldeek batera bultzatu beharko dute Udaltzaingoko Oinarrizko Eskalako bitarteko agente izateko lan-poltsa bat sortzeko; Udalek, hala, hango pertsonak bizkor eta eraginkor kontratatu ahal izango dituzte, behar dutenean, lehendik egongo baitira hautatuta eta beren funtzioak ondo gauzatzeko trebatuta eta gaituta.

HIRUGARRENIK.- Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistemak Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko lankidetzaren eta koordinazio-mekanismo bateratuak behar ditu, hain zuzen, azken horien ekintza-baliabideak optimizatzeko.



LAUGARRENİK.- Sinatzen duen Udalak ez ditu berezko baliabide teknikoak bitarteko tokiko agenteak hautatzeko eta prestatzeko eta, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak horretarako baliabideak eta azpiegiturak dituen, bi alderdiek jotzen dute egokia dela Akademia erabiltzea, bitarteko-erregimenean, beharrezkoak diren tokiko poliziako oinarrizko eskalako bitarteko agente-plazak estaltzeko.

BOSGARRENİK.- Lankidetzaren horren legezko oinarria apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua da, Tokiko Erregimenaren Oinarriak erregulatzen dituena. Horren arabera, toki-administrazioaren eta Estatuko eta autonomia-erkidegoetako administrazioen arteko ekonomia, teknika eta administrazio arloetako lankidetzaren, bai toki-zerbitzuetan bai guztien intereseko gaitan, borondatez burutuko da, legeetan ohiartemendako moduan eta erara; nolahi ere, izenpetu ditzaten administrazio-mailako partzuergo edo hitzarmenen bidez ere burutu daiteke.

Halaber, lankidetzaren hori ekainaren 28ko Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzen duen 15/2012 Legearen 3.3 eta 44.1 artikuluetan jasota dago. "3.3.- Segurtasun publikoan parte hartzen duten Euskal administrazio publiko guztiak eta horren karguko zerbitzu guztiak lankidetzaren, koordinazio- eta elkarlan-printzipioen arabera erlazionatzen dira elkarrekin." ; "44.1.- Segurtasun publikoko sail eskudunak polizia-lankidetzarako hitzarmenak sinatu ahal izango ditu interesa duten udalekin, elkarlanerako eta lankidetzarako modu eta prozedurak zehazteko."

Horregatik guztiatik, aldeek Lankidetzaren Hitzarmena sinatzea erabaki dute, hurrengoei jarraiki:

KLAUSULAK

LEHENA.- Xedea eta helburua. Hitzarmen honen xedea tokiko poliziako oinarrizko eskalako bitarteko agenteen lan-poltsa sortzea da, hala behar duten Udal sinatzaileei, premia handiko egoeretan eta kontzeptuan bertan jasotzen den aldi baterako izaerarekin, modu bizkor eta eraginkorrean lan-poltsako pertsonak kontratatzea ahalbidetzeko. Langile horiek alde aurretik hautatu, prestatu eta gaituko ditu Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak, berezko funtzioetan jarduteko. Kudeaketa eraginkorra eta baliabideak modu hobezinean erabiltzea Euskal Autonomia Erkidegoko Segurtasun Publikoaren Sistemaren beharrak egoki artatzearekin bateratu behar da, sistemaren kalitatea bermatuz.

Hitzarmen honen helburua, beraz, Udal sinatzaileen eskaerei erantzutea da eta haiei aldi baterako estaldura-zerbitzua eskaintzea, bitarteko-erregimenean, tokiko poliziaren oinarrizko eskalako agente-plazak betetzeko beharrezkoa denean, kalitatea eta eraginkortasuna bermatuz eta publizitate, berdintasun, meritu eta ahalmen printzipioekin bat.



BIGARRENA.- Bitarteko agenteen lan-poltsa osatzeko aplikazio-eremua eta pertsona hartzaileak. Lan-poltsa hau Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin lankidetzaren hitzarmen hau sinatu duten Udalek bakarrik erabili ahaliko dute, eta soilik bitarteko agenteak izendatzeko tokiko poliziako oinarriko eskalako agente-kategorian lanpostuak bete behar diren kasuetan, beharra eta premia behar bezala justifikatuz, karrerako langile funtzionarioekin bete ezin daitezkeenean.

Lan-poltsako zati izango dira Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak deitutako hautaketa-prozesuan parte hartu duten eta hori gainditu duten, eta Akademia horrek berak Arkauteko instalazioetan antolatutako prestakuntza-ikastaroa egin duten pertsonak.

HIRUGARRENA.- Aldeen betebeharrak. Segurtasuna Koordinatzeko Zuzendaritzari dagozkion sustapen-lanei eragin gabe, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak hautaketa-prozesu bat deitu du; onartutako eta kanpoan utzitako hautagaien zerrenda onartuko du; kalifikazio-epaimahaiko pertsona titularrak eta ordezkioak izendatuko ditu; frogak antolatuko eta kudeatuko ditu; gainditu duten pertsonen zerrenda ezagutaraziko du eta hautagaien prestakuntza gauzatuko du.

Hautagaiak hasiera batetik lan-poltsak eskaintzen dituen aukerak ezagut ditzaten, Akademiak hautaketa-prozesuaren deialdia behar bezala iragarriko du, hitzartutako Udalen web guneetan ere argitaratuz.

Bestalde, lankidetzaren hitzarmen hau sinatzen duten Udalek erabat onartzen dituzte tokiko poliziaren oinarriko eskalako bitarteko agenteentzako poltsa sortzeko jardute-irizpide hauek:

- 1) Berezko hautaketa-prozesuen ondorioz lan-poltsak antolatzeari uko egiten diote, polizia-agenteak karrerako funtzionarioztat integratzeko.
- 2) Segurtasun Sailaren poltsako bitarteko langileak modu eskusiboan erabiltzeko hitza ematen dute, eta aurkako kasuan, galarazi egiten da ondoren erabiltzea. Horrek esan nahi du berariaz uko egiten diotela beren poltsak deitzeari edo beste tokiko erakunde batzuk deitutako poltsak erabiltzeari.
- 3) Udal sinatzaileak berariaz jakinarazten duen kasuetan, lan-poltsa hau sortu aurretik existitzen ziren lan-poltsak kideak errespetatuko dira, baina irizpide hori eskatzen duen Udalaren udal-mugartearen barruan bakarrik aplikatuko da.
 - a) Aurreko puntuan adierazitakoarekin bat, Ordiziako Udalak adierazten du udaltzainen lan-poltsa bat duela, indarrean mantentzeko asmoa duela eta, beraz, lan-poltsa horretara joko duela Segurtasun Sailak osatuko duenera jo baino lehen, hargatik ezertan eragotzi gabe hitzarmen hau sinatuta bere gain hartzen dituen konpromisoak. Aipatu lan-poltsa Ordiziako Udaleko alkateak 2013ko urriaren 10eko datan deitutako hautaketa prozesutik eratorritakoa da (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2013ko urriaren 16an argitaratua).

LAUGARRENA.- Jarraipen Batzordea. Hitzarmena behar bezala zaintzeko, segimendu-batzorde tekniko bat sortu da, lau kidez osatua: bi Segurtasun Publikoko Euskal Administrazioa ordezkatzeko eta



beste bi dagokion Udala ordezkatzuz. Lehendakaritza Segurtasun Publikoko Euskal Administrazioako ordezkarietako batek beteko du.

Batzorde horren zereginak hauek dira: hitzarmena interpretatzean sor daitezkeen zalantzak argitzea, betearaztean eragin daitezkeen desadostasunak konpontzea, hitzarmenaren urratsak aztertzea eta, beharrezkoa izanez gero, hori hobetzeko proposamenak egitea.

Batzordea urtean behin bilduko da, gutxienez, aldeetako batek horrela eskatzen badu, eta adostasunez hartu beharko dituzte erabakiak.

BOSGARRENA.- Hitzarmena aldatzea. Lankidetzeta-hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean alda daiteke, bi aldeek hala erabakiz gero, eta erabaki berriak gehigarri gisa gehituko dizkiote dokumentu honi.

SEIGARRENA.- Hitzarmenaren araubidea eta auzigaiak. Hitzarmen hau administrazio arlokoa da, eta, beraz, interpretatu eta garatzeko administrazio publikoen arteko lankidetzeta-hitzarmenei aplikatu beharreko administrazio-araubidea bete beharko da.

Laugarren klausulan jasota dauden Segimendu Batzordeari esleitutako funtzioei eragin gabe, hitzarmen hau garatzean eta egikaritzean bi aldeen artean sor litezkeen liskarrak administrazioarekiko auzi-jurisdikzioaren esku jarriko dira.

ZAZPIGARRENA.- Indarraldia eta amaiera.

Hitzarmen hau aldeek sinatzen dutenean sartuko da indarrean, eta indarraldia 2015eko abenduaren 31n bukatuko da. Nolanahi ere, isilbidez luzatuko da ondoz ondoko urteko aldietan, aldeetako batek salatu ezean. Salatzeko, idatziko jakinarazpena egin behar zaio beste aldeari, hitzarmenaren edo luzapenen mugaeguna baino hilabete lehenago gutxienez.

Hitzarmena amaitu ahal izango da, aldeek edozer momentutan hala adosten badute.

ZORTZIGARRENA.- Erantsitako dokumentazioa. Hitzarmen honekin batera, ondorengo dokumentuak doaz:

- a) Tokiko poliziaren oinarrizko eskalako bitarteko agenteen lan-poltsa hautatzeko prozedura arautzen duten oinarriak eta deialdia (EHAA-n argitaratuak 2014ko otsailaren 25ean).
- b) Tokiko poliziaren oinarrizko eskalako bitarteko agenteen lan-poltsaren funtzionamendu-sistema arautzen duen arautegia.



Hitzarmen hau alde biek irakurri ondoren, bertan esandakoarekin bat datozela adierazteko, bina kopia sinatu dituzte, testuaren idazpuruan aipatutako tokian eta egunean, eta bertan ezarri diren klausulekin bat.

Malentxo Arruabarrena Julián
DIRECTORA DE LA ACADEMIA VASCA DE POLICÍA Y
EMERGENCIAS

Igor Eguren Izagirre
ALCALDE DEL AYUNTAMIENTO DE ORDIZIA

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labor-labor zerrendatzen direnak izan dira:

Asenjo jn

Aurkezpena egin du. Aurkeztu dugu poliziaren lan-poltsara atxikitzeke. Ordezkapenak arintzeko. Urtero berritu beharreko akordioa da.

Dubreuil jn.

Alde sozialaren iritzia entzun nahi duela esan du.

Alkate jn

Bilkuran dauden langile-ordezkariek kontra daudela adierazi ondoren, deialdiak antolatzea lan handia dakarrela azaldu du. Urte amaieran ikusiko dugu errentagarria izan den.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 6, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0



Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

12.- Txindoki 15 HIEren etorkizuneko garapena eta indarrean dagoen plangintza aldatzeko ORKLI S.COOP.ek eta Ordiziako Udalak adostutako Hitzarmenari aurkeztutako alegazioa. Behin betiko onartzea.

Proposamena

ERABAKI-PROPOSAMENA

Udaleko Osoko Bilkurak, 2014ko irailaren 25an egindako bileran, Orkli S. Coop. enpresaren eta Ordiziako Udalaren arteko hitzarmena onartu zuen, Txindoki Pasealekua 15- Hirigintza Interbentzio Eremuan indarrean dagoen plangintzan eta etorkizuneko garapenerako aldaketak egiteko, eta 2014ko azaroaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2006ko ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen Zazpigarren Xedapen Gehigarriaren zortzigarren paragrafoan xedaturikoaren arabera, jende aurreko informazio izapidean jarri da espedientea, hogeit egunez, eta egokitzen hartzen diren alegazioak aurkeztu ahal izango dira epe horretan; hain zuzen, 2014ko azaroaren 4an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Jende aurreko informazio aldi hiru alegazio idatzi jaso ditu Ordiziako Udalak, legezko epean eta moduan, eta txosten honetan aztertuko dira horiek.

2015eko apirilaren 17an, aurkeztutako alegazioei erantzuteko txostena egin zuen udal arkitektoak. Txosten horretan, honako honen berri ematen da:

(...)

Alegazioen idatzien zerrenda

Ordiziako Udalak honako alegazio idatziak jaso ditu:

- 1 zk.dun ALEGAZIOA:
Sinatzailea: GUILLERMO ESTEBAN GARMENDIA SAGASTUME jauna
Erregistro zk.: 3420
Sarrera-data: 2014ko azaroaren 26an
Aurkeztutako dokumentuak: 1882ko abuztuaren 23an emandako hitzarmenaren kopia.
- 2 zk.dun ALEGAZIOA:
Sinatzailea: GUILLERMO GARMENDIA SAGASTUME jauna, JOSÉ RAMÓN ARRUE ARANDIA jauna eta GENARO AGIRRE GARCIANDIA jauna.
Erregistro zk: 3436



Sarrera-data: 2014ko azaroaren 26an

Aurkeztutako dokumentuak: ---

- 3 zk.dun ALEGAZIOA:
Sinatzailea: TERESA VILA RODRÍGUEZ andrea
Erregistro zk: 3452
Sarrera-data: 2014ko azaroaren 27an

Aurkeztutako dokumentuak: jardueraren kokapenaren plano hitzarmenaren 1. eranskinen planoaren gainean; Gizarte Segurantzaren enpresariaren inskripzioaren dokumentu egiaztagarria; norbere kontura edo autonomo gisa langileen erregimen berezian alta eman izana egiaztatzen duen dokumentua; jarduera ekonomikoen gaineko zergen dokumentu egiaztagarria; sarbideak adierazita dituen plano hitzarmenaren 2. eranskinen planoaren gainean.

2.- ALEGAZIOEN IDATZIEN EDUKIA ETA BALORAZIOAK

- 1 zk.dun ALEGAZIOA:
Sinatzailea: GUILLERMO ESTEBAN GARMENDIA SAGASTUME jauna
Erregistro zk.: 3420
Sarrera-data: 2014ko azaroaren 26an
Aurkeztutako dokumentuak: 1882ko abuztuaren 23an emandako hitzarmenaren kopia.

ALEGAZIOAREN LABURPENA:

- Agertutakoak adierazten du Orkli enpresaren jabetzan geratuko diren lursailen zati baten jabea dela, beste batzuekin batera, zehazki Ordizia eta Arama arteko gaur egungo bidearen edo ibilgailu-bidearen lursailarena, bere garaiaren bide zor bat eratu zuena, bere arbasoetako bat den Jose Maria Jauregui jaunak bere lursailetan eraikitako bidea eta zubia baliatuz. Hain zuzen, hitzarmen bidez sinatu zen hori 1882ko abuztuaren 23an, eta dokumentu horren kopia erantsi da.

ALEGAZIOARI BURUZKO TXOSTENA:

- Ordizia eta Arama lotzen dituen ibilgailu-bidea, aparkalekuak eta ondoko espaloiak Ordiziako Udalaren jabetzakoak dira Amundarain ibaiaren gainean dagoen zubira arte, Tolosako Jabetza Erregistroan inskribatuta dagoen eta Jon Orue-Etxebarria Iturri abokatuak 2001eko urrian idatzitako eta 2002ko urriaren 10eko Alkate Dekretuak (717 zk.) behin betiko onartutako "Txindoki" 15 HIEren 15.3 EUren Kontentsazio Proiektuan inskribatuta dagoenaren arabera.
- Arestian aipatutako Kontentsazio Proiektuari erantsitako lurzati gisa agertzen dira 3 lurzati pribatu Orkli S.Coop enpresaren jabetzakoak, Pedro José Esnaola Choperena eta Juana Aranburu Suquia senar-emazteek erositakoak, baita zoru lurzati bat ere jabetza eta erabilera publikokoa, Ordizia eta Arama udalerrien arteko bide lotura egiteko. Azken lurzati hori ez zegoen inskribatuta jabetza-erregistroan une horretan, eta, beraz, berau immatrikulatzeko eskatzen da indarrean dagoen legediaren arabera.
- Ez dira balioesten alegatzaileak baliatzen dituen balizko eskubide historikoak; hala ere, adierazi nahi da eskubide horiek arestian aipatutako Kontentsazio Proiektua idazteko eta izapidetzeko



prozesuan zehaztu behar ziratekeela, eta une honetan ez dute baliorik Ordiziako Txindoki P. 15- HIEren esparruan.

PROPOSAMENA:

- Arestian aipatutako argumentuak oinarri hartuta, alegazioa gaitzestea proposatu da.

- 2 zk.dun ALEGAZIOA:

Sinatzailea: GUILLERMO GARMENDIA SAGASTUME jauna, JOSÉ RAMÓN ARRUE ARANDIA jauna eta GENARO AGIRRE GARCIANDIA jauna.

Erregistro zk: 3436

Sarrera-data: 2014ko azaroaren 26an

Aurkeztutako dokumentuak: ---

ALEGAZIOAREN LABURPENA:

- Adierazi da hitzarmenaren eranskin gisa agertzen diren planoetan ez dela agertzen hitzarmeneko bosgarren klausulan eskatzen den ibilgailu-bidea.
- Proposatu da ibiaren ondoan aurreikusitako oinezkoen pasabideak ez duela ihesbiderik, ihesbiderik gabeko korridorea dela, eta eraso baten aurrean arriskutsua izan daitekeela.
- Ondorioztatu da oinezkoen sarbide berriak oinezkoentzako erabilera izango lukeela soilik, eta, beraz, bizikletek trafiko asko egoten den eskualdeko errepidean joan beharko luketela; horrek arriskua sortzen du.
- Proposatu da Aramako errepide zaharrak ez duela nahikoa zabalerarik bi ibilgailu aldi berean zirkulatu ahal izateko.
- Ordiziatik Aramarako egungo bidetik, aurreikusitako jarduerarekin kendu egiten denetik, 6 etxebizitzaren ur-hornidura igarotzen da, eta hornidura hori bermatu egin beharko da.

ALEGAZIOARI BURUZKO TXOSTENA:

- Ordiziako Udalak hasieran onartutako Hirigintza Hitzarmenaren bosgarren klausulak zera jasotzen du: "Ezin izango da gaur egun Ordizia eta Arama tartean dagoen ibilgailuen pasabidea kendu alde aurretik ibilgailuentzako sarbide berri bat (funtzionaltasuna eta segurtasuna bermatuz) eraiki arte". Sarbide berria ez litzateke Ordizian kokatuko, eta, beraz, haren zehaztapan teknikoak ez dagokio Udal honi, Aramako Udalari baizik; hortaz, ez da jaso hitzarmen honetan.
- Ordiziako udal zerbitzu teknikoek ez dituzte partekatzen aurreikusitako oinezkoen pasabide berriaren arriskutasunari buruzko iritziak. Oinezkoen bide bat da, eta inguruan dagoen beste edozein oinezko pasabide bako zabalera handiagoa du. Nolanahi ere, Udal honek bere esku dagoen guztia egingo du pasabide horrek ahal bezain kalitate handiena izateko eta ingurumenaren eta pasaiaren arloan eta segurtasunaren arloan baldintzarik onenak izateko.
- Pasabide hori oinezkoek soilik erabiltzeari buruzko ondorioa ez da zuzena. Bidea zabala denez, oinezkoek eta ziklistek erabili ahal izatea bermatzen du, gaur egun diseinatzen diren erabilera mistoko ibilbide gehienena baino zabalera handiagokoa izatea aurreikusten baita.
- Ordiziako Udalak ez du balioesten Araman garatzen diren oinezkoentzako ibilbideen kalitatea.
- Bestela ezin eta Ordizian egitea aurreikusten den jarduerak gaur egun dagoen ur hornidura bermatuko du.



PROPOSAMENA:

- Arestian aipatutako argumentuak oinarri hartuta, alegazioa gaitzestea proposatu da.

- 3 zk.dun ALEGAZIOA:

Sinatzailea: TERESA VILA RODRÍGUEZ andrea

Erregistro zk: 3452

Sarrera-data: 2014ko azaroaren 27an

Aurkeztutako dokumentuak: jardueraren kokapenaren planoa hitzarmenaren 1. eranskineko planoaren gainean; Gizarte Segurantzaren enpresariaren inskripzioaren dokumentu egiaztagarria; norbere kontura edo autonomo gisa langileen erregimen berezian alta eman izana egiaztatzen duen dokumentua; jarduera ekonomikoen gaineko zergen dokumentu egiaztagarria; sarbideak adierazita dituen planoa hitzarmenaren 2. eranskineko planoaren gainean.

ALEGAZIOAREN LABURPENA:

- Hasteko, bizilagunek aurkeztutako alegazio guztiak beretzat hartu ditu.
- Errepidearen zabaleragatik gaur egun Aramako Perutxo etxea baserriko aroztegiaren jardunak beharrezkoa duen kamioi sarbiderako zailtasunak daudela aipatu da, eta argi eta garbi zabaldu egin beharko litzateke.
- Hirigintza Proiektuan aurreikusitako jarduerak ibaiaren beste aldean kokatutako etxebizitzaren eta industrien sarbideak errotik okertuko dituela iritzi da.
- Oinezkoen dagokionez, iritzi da aurreikusitako ibilbide berriak puntu beltz bat sortuko duela segurtasunaren ikuspuntutik. Aipatu da ibaiaren ondoko pasabideak bi metroko zabalera duela, eta, ondorioz, ezin dela anbulantziarik sartu oinezkoa artatzeko balizko larritasun egoera batean.
- Turismoaren eta kamioien ibilgailu sarbideari dagokionez, uste da sarbidea erabat ixten dela, beste aukerarik eman gabe, eta etxebizitza eta aroztegia erabat bakartuta geratuko direla.

ALEGAZIOARI BURUZKO TXOSTENA:

- Bizilagunek aurkeztutako gainerako alegazioak onartzeari dagokionez, gainerako alegazioetarako egindako txostenari lotzen gaitzaizkio.
- Gaur egun kamioiak sartzeko mugei dagokionez, adierazi behar da lurzoru urbanizaezinean industria jarduera kokatzeko erabakiak, haren legezotasuna gorabehera, ezin diela eragin administrazio publiko eskudunei ohiko industria lurzorurako eskatzen diren hirigintza baldintza baliokideak bermatzeko zama.
- Aurreko alegazioan aipatu den moduan, Ordiziako Udaleko udal zerbitzu teknikoek ez dute uste Aramako etxebizitzetarako ibilgailu ez motordunen irisgarritasun baldintzak okertuko direnik. Bestalde, faltsua da aurreikusitako bideak anbulantzien sarbidea ahalbidetzen ez duenik; izan ere, 5 m-ko zabalera du, alegatzaileak adierazitako 2 m-ko zabaleraren orde.
- Autoetarako eta kamioietarako ibilgailu sarbideari dagokionez, hitzarmenaren bosgarren klausulari lotzen gaitzaizkio, 1. alegazio txostenean adierazten moduan. Hain zuzen, klausula horrek zera ezartzen du: "Ezin izango da gaur egun Ordizia eta Arama tartean dagoen



ibilgailuen pasabidea kendu aldez aurretik ibilgailuentzako sarbide berri bat (funtzionaltasuna eta segurtasuna bermatuz) eraiki arte"; Aramako Udalari dagokio etorkizuneko sarbidearen baldintza teknikoak ezartzea.

PROPOSAMENA:

- *Arestian aipatutako argumentuak oinarri hartuta, alegazioa gaitzestea proposatu da.*

(...)

Arestian aipatutako guztia kontuan hartuta, hau

ERABAKI DA

LEHENA: aurkeztutako alegazio guztiak osorik gaitzestea, erabaki honen azalpenen zatian azaldutako argumentuak oinarri hartuta.

BIGARRENA: behin betiko onartzea ORKLI S. COOP. enpresaren eta Ordiziako Udalaren arteko hitzarmena, Txindoki 15 HIE esparruan indarrean dagoen plangintzan eta etorkizuneko garapenerako aldaketak egiteko.

HIRUGARRENA: erabaki hau eta hitzarmen honen eduki osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LAUGARRENA: erabaki honen berri ematea alegazioak aurkeztu dituzten pertsoneri eta ORKLI S. COOP. enpresari.

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira: ez dira izan.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 12 (BILDU 6, EAJ 5, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 0

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.





Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

13.- Ordiziako udalaren eta Basque Culinary Center Fundazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena

HITZARMEN PROPOSAMENA

Ordizian, ... (e)ko ... (e)... (a)n

BILDU DIRA

Alde batetik, Ordiziako alkate Igor Eguren Izagirre jauna, Ordiziako Udalaren izenean eta ordezkari gisa jardunez, horretarako eskumena baitu Udalbatza Osoak (e)ko (e)an hartutako erabakiaren arabera.

Egintza honetan, Ordiziako Udaleko idazkari Iker Rocandio Etxeberria jaun/andrearen laguntza izan du, egintzaren fedea emateko.

Beste alde batetik, Jose Maria Aicega Zubillaga jauna, Basque Culinary Center Fundazioaren zuzendari nagusi gisa.

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:

LEHENENGOA: Ordiziako Udala Oianguren baserriaren jabea da. Oianguren parkean dago, Ordiziako udal-barrutian. Baserri hori Ordiziako Udaleko Ondasunen Inbentarioan inskribatuta dago, herri jabariko ondasun gisa. Guztira 1980 m²-ko azalera eraikia du, 3 solairutan banatuta.

BIGARRENA: Basque Culinary Center Fundazioa Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearekin bat etorritik eratu zen, eta eskubide pribatuko erakunde juridikoa da, interes orokor edo publikoa betetzea xede duena. Fundazioaren estatutuarekin bat etorritik, irabazi asmorik gabe eratutako erakundea da.

Halaber, aipatu estatutuarekin bat etorritik, Basque Culinary Center Fundazioaren xedea da Gastronomía Zientzien hainbat arlotan prestakuntzari, ikerketari, berrikuntzari eta ezagutzaren transmisioari eta teknologiari bide ematea. Hala, elkarrekiko ikerketa prozesuak sortuko dira unibertsitateen, teknologia zentroen, enpresen eta erakunde publikoen artean, ezagutza sortzeko eta transmititzeko gai izango den sarea garatzeko. Horretarako, helburu nagusi hauek hartuko dira ardatz:

-Euskal sukaldaritzari goi-mailako sukaldaritzako interesgune gisa eta etorkizuneko berrikuntza gisa jarraipena emango zaiola bermatzea, goi-mailako ezagutza sortuz eta profesional gaituei prestakuntza



emanez. Horretarako, prestakuntza eskaintza zabala eta bateratua ezarriko da: unibertsitateko titulu ofizial bat, graduondoko ikasketen eskaintza eta etengabeko prestakuntzaren eskaintza.

-Garapen iraunkorra sortzea gastronomiaren kulturaren, elikaduraren hezkuntzan eta elikadura joeretan.

-Ikerketa eta ezagutzaren transferentzia sustatzea goi-mailako profesionalen eta enpresa sektoreen artean, baita zuzenean edo zeharka gastronomiarekin loturiko ezagutza ere (elikadurarekin loturiko teknologiak, nutrizioa, elikadura funtzionala, argitalpenak, ekipamendua, nekazaritzako elikagaiak eta abar), horien artean sinergiak bultzatuz.

Adierazitakoarekin bat etorritik, Basque Culinary Center Fundazioak gradu hau emango du:

Gastronomia eta Sukaldaritza Arteetan gradua

Graduak diziplina arteko prestakuntza ematen du arlo hauetan: sukaldaritza, jangela, kultura eta zientzia. Era berean, espezializatzeko hiru ibilbide ditu.

Enpresan, Berrikuntzan eta Ekintzailtzan espezializatzeko ibilbidea edo bidea, sukaldaritza esparruan negozio proposamen berritzaileak diseinatzea eta garatzea xede duena. Horretarako, informazioa partekatuko da gastronomia arloko pertsona, enpresa, elkarte eta bestelakoen artean. Teknologiak eta komunikazio sareak erabiliko dira, tokiko nahiz mundu mailako merkatuen artean presentzia aktiboa izateko eta horri eusteko.

Gradu horretan, gradu amaierako lana egingo da. Hona hemen lan horren edukia:

Gradu amaierako lana

Ikasleek Gradu Amaierako Lana (GAL) egin behar dute enpresa batean edo Gastronomia Zientzien Fakultatean bertan. Horretarako, gainera, aukera ezin hobea emango zaie ikasketetan ikasitako ezagutzak praktikan jartzeko, eta tituluaren baitan dauden gaitasunak garatzeko. Oro har, GAL horiek benetako arazo, auzi eta erronkei erantzuteko proiektuak dira. Horiei ekin baino lehen, definitu eta onetsi egin behar dira, eta, ikasleek, ondoren, garatu edota irtenbideak bilatu beharko dituzte. Horretarako, ikasitako gaitasun guztiak aplikatuko dituzte, tutore akademikoak (Fakultateko irakaslea) eta enpresako tutoreak gainbegiratuta. Gradu amaierako lanaren prozesuan, aurkezpenak eta deskargu partzialak egingo dira, eta lana epaimahai akademiko baten aurrean aurkeztu eta defendatu behar da. Azken horretan, irakasleek nahiz enpresako langileek hartuko dute parte.

HIRUGARRENA: Sinatuko duten bi aldeek nahia da lankidetzaren hitzarmena formalizatzea. Horren bidez, Basque Culinary Center Fundazioan ikasten ari diren ikasleek gradu amaierako lana egin ahal izango dute Oianguren Baserriaren beheko solairuan dagoen jatetxea kudeatuz. Horrez gain, beste zenbait ekintza ere egingo dituzte. Hala, Basque Culinary Center Fundazioak Ordiziako Udalarekin lankidetzaren aritzeko konpromisoa hartzen du, besteak beste, azken horrek hala eskatuta, hitzaldiak, ikastaroak,



erakustaldiak, erakusketak, ekintza bereziak azoka edo udal festetan edo gastronomiarekin loturiko beste edozein ekintza gauzatzeko.

Hitzarmen honen edukiaren xedea da, besteak beste, udalerriko ekonomia, turismoa eta kultura sustatzen eta udalerriko aisialdi eta atsedenerako guneak nahiz berdeguneak bultzatzen eta indartzen laguntzea, indarrean dagoen legearen eskumenekin bat etorriz; zehazki, toki araubidearen legeriak udalerriei ematen dizkien eskumenei dagokienez, nagusiki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak. Aipatutakoez gain, hizpide dugun kasuan beste helburu batzuk ere badaude, besteak beste, ikasleen hezkuntza eta prestakuntza, helburu nagusi gisa gazteen enplegarritasuna bultzatzeko, ahal den neurrian, Ordizian eta eskualdean, krisialdi ekonomiko sakonean murgilduta dagoen inguruan.

Hitzarmen hau egitean, bi erakundeak irabazi asmorik gabekoak direla hartu da oinarri, interes publiko orokorrerako hainbat helburu lortzeko asmoz, betiere ondare arloko interesik egon gabe eta aldean artean diru-ordainik sortu gabe.

Halaber, hitzarmen honen bidez, helburu orokorrak lortzeko baliabideak bateratuko dira, eta horren truke ez da interes-ordainik egongo.

Bestalde, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 137.4 artikulua - lege bereko 93.1 artikuluaen harira- ezartzen du herri jabariko ondasunen gaineko emakidak zuzenean esleitu ahal izango direla: b) Eskuratzaila irabazi asmorik gabeko erakundea denean, erabilera publikokotzat jo denean edota eliza, sinesbide edo legez aitortutako erlijio-komunitateren bat denean, eta c) higiezina beharrezkoa denean zerbitzu publikoren bat emateko edo a) eta b) paragrafoetan aurreikusi ez diren beste pertsona batzuen interes orokorrerako egiten denean.

Hori guztia dela eta, bi aldeek erabaki dute hitzarmen hau sinatzea, jarraian adierazitako klausulekin bat etorriz

KLAUSULAK

LEHENENGOA: Xedea eta helburua: Hitzarmen honen xedea da Oianguren baserriaren kudeaketa arautzea, Basque Culinary Center Fundazioko ikasleek gradu amaierako lana egiteari dagokionez. Horretarako, Basque Culinary Center Fundazioak jabetxearen zerbitzua eman eta kudeatuko du beheko solairuan, hitzarmen honen azalpenetan adierazietako helburuak eta xedeak lortzeko.

Hitzarmen honen xedea da, era berean, bi erakundeen artean lankidetzan aritzea. Hala, Basque Culinary Center Fundazioak Ordiziako Udalarekin lankidetzan aritzeko konpromisoa hartuko du, azken horrek hala eskatuta, zenbait ekintzatan; besteak beste: hitzaldi, ikastaro, erakustaldi, erakusketa, azoka edo udal jaietako ekintza berezietan edo gastronomiarekin loturiko beste edozein ekintzatan.

BIGARRENA: aldean betebeharrak.

ORDIZIAKO UDALAREN BETEBEHARRAK:



-Basque Culinary Center Fundazioari beharrezko babesak ematea jatetxearen zerbitzua behar bezala gauzatu ahal izateko, baita lankidetzak hitzarmen honen xedea osatzen duten beste lankidetzak ekintza batzuk egiteko ere.

-Basque Culinary Center Fundazioaren esku jartzea Oianguren baserriaren beheko solairua, jatetxearen zerbitzua eman ahal izateko bertan. Aurrekoaz gain, Basque Culinary Center Fundazioak Oianguren baserriko bigarren solairua erabili ahal izango du, betiere borondatez hala nahi badu, ikasleek bertan egin ditzaten gradu amaierako lana eta solairu hori euren egoitza eraginkor gisa har dezaten.

- Udalak, egokitzat jotzen badu eta Basque Culinary Center Fundazioaren adostasuna izanik, azken horri laga diezaiokete Oianguren baserriari erantsitako eraikina, kafetegi eta jatetxe zerbitzua eman ahal izateko. Nolanahi ere, Ordiziako Udalak beretzat gordetzen du zerbitzu hau beste pertsona edo erakunderen bati esleitzeko eskubidea.

- Basque Culinary Center Fundazioaren esku jartzea hitzarmen honen eranskinean adierazten den sukaldearen ekipamendu osoa, jatetxea eta jangela. Instalazio guztiak -bertako hobekuntzak eta akzesioak barne- eta aipatu ekipamendua egoera ezin hobean itzuli beharko dira hitzarmen honen indarraldia amaitzean. Eranskinean adierazita ez dagoen beste edozein ekipamendu erosten bada, horren kostu osoa Basque Culinary Center Fundazioak hartuko du bere gain.

BASQUE CULINARY CENTER FUNDAZIOAREN BETEBEHARRAK:

-Basque Culinary Center Fundazioko ikasleek egin beharreko gradu amaierako lana gainbegiratzea.

-Gradu amaierako lan horren baitan, jatetxe zerbitzua ematea Oianguren baserriaren beheko solairuan. Basque Culinary Center Fundazioak ezin izango du bestelako zerbitzurik eman (esate baterako, ezkontzak, festak edo beste mota bateko jarduera bereziak). Horretarako, aurretiaz eta berariaz beharko du Ordiziako Udalaren baimena.

- Ordutegiak direla eta, dagokion udal ordenantzan ezarritako arauak bete beharko dira, baita aplikatzekoa den esparruan udalaz gaindikoa arauditik eratorritako mugak ere.

-Bazkarien zerbitzua emango da, eguneko menua zerbitzatzeko betebeharra ere ezarrita.

-Jatetxearen zerbitzua urte osoan emango da, astero atsedean egun bat hartuta. Egun hori ez da inoiz ere larunbata edo jaieguna izango.

- Basque Culinary Center Fundazioak, ahal dela, Ordizian eta Goierri eskualdean sortutako edo bertan jatorria duten lehengai eta produktuekin lan egingo du, eta, hala ez denean, Euskal Herrian sortutako edo bertan jatorria duten lehengai eta produktuekin.



-Basque Culinary Center Fundazioak hitzarmen hau aplikatzeko beharrezkoak diren jarduerak gauzatzeko beharrezkoa badu gradu amaierako lana egin behar duten ikasleez gain langile gehiago kontratatzeko, ahal bada, Ordizian erroldatutako pertsonen artean egingo da kontratazioa, edo bestela, Goierri eskualdeko udalerrietan erroldatutako pertsonen artean.

-Basque Culinary Center Fundazioak Ordiziako Udalarekin lankidetzan aritzeko konpromisoa hartuko du, azken horrek hala eskatuta, askotariko ekintzetan; besteak beste: hitzaldietan, ikastaroetan, erakustaldietan, erakusketetan, azoka edo udal jaietako ekintza berezietan edo gastronomiarekin loturiko beste edozein ekintzatan.

-6.000,00 euroko bermea ematea, Udalak Basque Culinary Center Fundazioari utzitako ekipamenduan gerta daitezkeen kalte edo galerei erantzuteko. Halaber, berme horren bidez erantzungo zaie higiezinan edo Basque Culinary Center Fundazioak erabiltzen dituen instalazioetan izandako kalteei, hitzarmen honetan xedatutakoa aplikatzeko. Berme hori, edozein kasutan, lankidetzan hitzarmen hau indarrean sartu baino lehen eratu beharko da, eta Ordiziako Udalaren edo Basque Culinary Center Fundazioaren alde aurkeztu ahal izango da, edota, hark eskatuta, ikasleek eraturako erakunde juridikoaren alde.

Bermea itzuli egingo da, hala badagokio, betiere Udalak instalazioak edo ekipamenduak egoera eskasean egotearen ondorioz ordaindu beharreko gastuak kendu ondoren.

Basque Culinary Center Fundazioari dagokiola ulertuko da, eta, hark, era berean, ikasleek eraturako erakunde juridikoari eskatuko diote Udalak utzitako ekipamenduak eta instalazioak konpontzeko edo lehengoratzeko dagozkion gastuak bere gain hartzea, betiere gastu horiek erabilera normalaren ondorio badira.

Basque Culinary Center Fundazioak berezko lagapen gisa uzten duen ekipamendu edo materialari dagokionez –eta hitzarmen honen eranskinean zerrendatuta ez daudenak-, hitzarmen honen indarraldia amaitu ondoren, Basque Culinary Center Fundazioaren jabetzakoa izango da.

Edozein kasutan, Basque Culinary Center Fundazioak hala erabakita, altzari berriak instalatu nahi badira, aurretiaz Ordiziako Udalaren baimena beharko da.

-Kasuan kasuko jarduerak gauzatzean Udalari edo hirugarrenei eragiten zaizkien kalteak ordaintzea. Horretarako, erantzukizun zibilarren poliza sinatu eta indarrean izan beharko du. Gutxienez, 300.000,00 euroko estaldura izango du.

-Basque Culinary Center Fundazioa arduratuko da instalazioak kontserbatzeaz eta uneoro funtzionamendu egoera ezin hobean mantentzeaz. Horrek, era berean, erantzukizun hori bera eskatuko dio ikasleek eraturako erakunde juridikoari. Hala, euren kontu egin beharko dituzte beharrezko konponketa eta mantentze-lanak, horien zenbatekoa eta arrazoa edozein izanik ere. Edozein kasutan, emakidadunaren kontura ordainduko dira gastu hauek:

- obra eta instalazioen mantentze-lanak,
- kalteen konponketak,



- ur hornidura, energia elektrikoa, gasa, telefonoa eta dagozkion zerga guztiak
 - zaborren eta hondakin-uren hustuketa,
 - lokalak garbitzea, margotzea eta apaintzea.
- Basque Culinary Center Fundazioak uneoro egoera ezin hobean mantendu beharko ditu erabilitako instalazioak eta ekipamenduak segurtasunari, osasungarritasunari eta garbitasunari dagokionez. Beharrezkoa den guztietan garbiketa egin beharko du, astean bi aldiz gutxienez, instalazioak jendearentzako irekita dauden egunetan.

-Utzitako instalazioak ez erabiltzea hitzarmen honetan ezarrita ez dauden bestelako jardueretarako.

- Jarduera horiek eta hitzarmen honen xede diren ondasunak ez uztea beste inori, Ordiziako Udalak berariaz horretarako baimenik eman ez badu. Aurrekoa gorabehera, Basque Culinary Centerreko ikasleek gradu amaierako lanaren baitan egin beharreko jardueretarako, ikasleek izaera juridiko independenteko erakunde bat eratu ahal izango dute. Erakunde horrek kudeatuko du jatetxea, betiere Basque Culinary Center Fundazioaren baimena baldin badute eta aldeztatik frogatzeko moduan jakinarazten badiote Ordiziako Udalarari. Basque Culinary Centerrek berariazko hitzarmen baten bidez arautuko ditu ikasleekin eratutako erakunde juridikoaren eskubideak eta betebeharrak. Hori guztia gorabehera, hitzarmen honen arabera ezartzen den harreman juridikoa beti izango da Ordiziako Udalaren eta Basque Culinary Center Fundazioaren artekoa. Hala, horren inguruko edozein harreman eta/edo komunikazio mota nahitaez bi erakunde horien artean sortu behar dela ulertuko da. Basque Culinary Center Fundazioak erantzun beharko du Udalaren aurrean hitzarmen hau aplikatzean sor daitekeen edozein gorabehera eta/edo erantzukizun baldin badago.

HIRUGARRENA: Ustiaketaren emaitzak.

Jatetxea ustiatzearen ondorioz lortutako etekinak hitzarmen hau sinatu duten bi aldeentzat izango dira (erdibana egingo dute).

Xede horretarako, Basque Culinary Center Fundazioak urte bakoitzeko otsailaren 15a baino lehen aurkeztu beharko du jatetxearen kudeaketari dagokion ustiaketaren emaitza, aurreko urte naturalari dagokiona (aurreko urte naturaltzat joko da aurreko urteko abenduaren 31n amaitzen dena). Emaitza hori justifikatzeko, egindako gastuen berri eman beharko da justifikatzeko moduan, edo bestela gastu hori moduluka edo kontabilitate egoerak aurkeztuz egiaztatu ahal izango da, bai eta Ordiziako Udaleko Kontu-hartzaileak ezartzen duen beste edozein agiriren bidez ere. Basque Culinary Center Fundazioak derrigor aurkeztu beharko du Udalak eskatutako informazioa eta dokumentazioa.

Galerarik sortzen bada, Basque Culinary Center Fundazioaren erantzukizuna izango da erabat.

Ordiziako Udalak lortzen dituen diru-sarrerak, halakorik egotekotan, adierazitakoarekin bat etorritik, Oiangu Parkea biziberritzeko eta sustatzeko erabiliko dira, betiere Udalaren aurrekontu eta finantza egoerak ahalbidetzen badu.

LAUGARRENA: Ikuskatzea.

Ordiziako Udalak, edozein kasutan, eskubidea izango du Basque Culinary Center Fundazioak hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak behar bezala betetzen dituela ikuskatzeko.

Ordiziako Udalak, era berean, edozein unetan gainbegiratu ahal izango ditu hitzarmen honetan adierazitako instalazioak, hain zuzen, kontserbazio-egoera, erabilera eta higiena egokiak direla ikuskatzeko.

BOSGARRENA: Hitzarmenaren indarraldia.

Hitzarmena sinatu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Guztira 4 urteko indarraldia izango du. Bi aldiz luzatzeko aukera egongo da, horietako bakoitzean bi urte. Hala, hitzarmenaren indarraldia gehienez ere 8 urtekoa izango da. Aldeetako batek berariaz eta idatziz adierazten ez duen bitartean hitzarmena baliogabetu nahi duela (iraungi baino hiru hilabete lehenago adierazi behar da), hitzarmen hau zuzenean luzatuko da, betiere kontuan hartuta gehienez ere 8 urtez egon daitekeela indarrean.

SEIGARRENA: Hitzarmena iraungitzea:

Hitzarmena iraungi egingo da hura betetzen denean edo bertan behera geratzen denean.

Hona hemen kontratu hau suntsiarazteko arrazoiak:

- a) Basque Culinary Center Fundazioaren izaera juridikoa iraungitzea.
- b) Beste edozein prozeduratan lehiaketa edo kaudimen gabezia adieraztea.
- c) Ordiziako Udalaren eta Basque Culinary Center Fundazioaren artean adostasunez erabakita.
- d) Hitzarmena hasieran hitzartutako baldintzetan gauzatzeko ezintasuna edo baldintza horietan gauzaten jarraitzeko interes publikoko lesioren bat gertatzeko benetako posibilitatea egotea.
- e) Basque Culinary Center Fundazioak behin eta berriz haustea hitzarmen honetan bere gain hartutako betebeharrak.
- f) Administrazioak zerbitzua berreskuratzea.
- g) Interes publikoko arrazoiak tarteko, zerbitzua bertan behera geratzea.
- h) Administrazioak kontratuaren ondoren hartutako erabakien ondorioz zerbitzua ustiatzea ezinezkoa izatea.

ZAZPIGARRENA: Ordiziako Udalaren eskumenak.

Udalari dagokio hitzarmen hau interpretatzeko, betearazpenak sor ditzakeen zalantzak konpontzeko, interes publikoarekin loturiko arrazoiengatik aldatzeko edo berau suntsiarazteko eta horren ondorioak zehazteko eskumena.

ZORTZIGARRENA: Basque Culinary Center Fundazioaren lan betebeharrak.



Basque Culinary Center Fundazioak derrigor beteko du lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko higienaren arloan indarrean dagoen araudia. Udalak ez du erantzukizunik izango arau-hauste horien gainean.

BEDERATZIGARRENA: Datu pertsonalak babestea.

Kontratazio hau gauzatzeko datu pertsonalak eskuratu behar badira, kontratugileak SPKLTBren hogeita seigarren Xedapen Gehigarritik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu; hain zuzen ere, Datu Pertsonalen Babeserako abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin loturikoak eta hura garatzeko arauditik eratorritako betebeharrak.

HAMARGARRENA: Eskumeneko jurisdikzioa.

Hitzarmen hau juridikoa eta administratiboa da, eta kontratu honetatik erator daitezkeen auzi eztabaidagarriak kontratazio organoak ebatziko ditu. Hark hartutako erabakiek administrazio bidea amaituko dute, eta zuzenean aurkaratu ahal izango dira administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan.

HAMAIKAGARRENA: Hizkuntza irizpideak.

Kasu guztietan bermatuko dira herritarren hizkuntza eskubideak.

Horrekin bat etorritik, Basque Culinary Center Fundazioak gauzatzen dituen jarduera guztietan, hitzarmen hau betetzeko, jendearekiko, bezeroekiko, erabiltzaileekiko eta oro har herritarrekiko arreta euskaraz eta gaztelaniaz izatea bermatuko da.

Zehazki, uneoro bermatuko da, jatetxeari dagokionez, gutxienez jangelako pertsona batek arreta euskaraz eman ahal izatea.

Enpresa esleipendunak euskara eta gaztelania erabili beharko du errotuluetan, komunikazioetan, publizitatean eta ematen den zerbitzurako sor daitezkeen dokumentuetan; besteak beste, kasuan kasuko gutunetan eta eguneko menuetan.

Xede horietarako, Basque Culinary Center Fundazioak egiaztatu egin beharko du ekintza horiek gauzatzeko ardura duten pertsonak beharrezko hizkuntza gaitasuna dutela.

Klausula hau betetzeko, beharrezkoak diren itzulpenak egiteari dagokionez, Basque Culinary Center Fundazioak Ordiziako Udaleko Euskara zerbitzuen doako zerbitzua erabili ahal izango du.

HAMABIGARRENA. Aplikatzekoa den araudia.

Hitzarmen hau, eta bertan aurreikusitako guztia, indarrean egongo da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean, sektore publikoko kontratuen araudian -gerta daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko-, Sektore Publikoko



Kontratuen Legearen testu bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 4.2 artikuluan eta aplikatzekoa den administrazio zuzenbideko beste edozein arauditan ezarritakoaren arabera.

HITZARMEN PROPOSAMENA

LEHENENGOA: Onestea Ordiziako Udalaren eta Basque Culinary Center Fundazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena.

BIGARRENA: Erabaki hau jakinaraztea Basque Culinary Center Fundazioari.

ERANSKINA

MATERIALA	unit.
6 SUTEGIKO MODULUA	1
SUTEGI OSO HANDIA	1
LABE MISTOA (LURRUNA ETA KONBEKZIOA)	1
PLANTXA, ALTZAIRU HERDOILGAITZEZKOA	1
HOZKAILU TINBREA, BANKU ETA GUZTI	5
HARRASKAK	3
HOZKAILU GANBERA	1
ONTZI GARBIGAILUA	1
MAHAI BEROA	2
HUTSEAN ONTZIRATZEKO MAKINA	2
TENPERATURA JAISTEKOA	1
BERONTZIA	1
SUBURU ERAUZGAILUA	1
IZOKAILU TXIKIA	1
IZOKAILU HANDIA	1
KUTXAZAR IZOKAILUA	1
PARRILLA	1
KONKETA	1
KONKETA DUTXA (KANILA)	2
GARBITZEKO TUTU MALGUAK	1
SUKALDEKO APALATEGI HERDOILGAITZAK	4
MATERIALA JASOTZEKO BANKUA	1
JANGELAKO MATERIALA	



MATERIALA	unit.
KANILA/HARRASKA. BARRARAKO	1
KAFE MAKINA	1
MUSIKA EKIPOA ETA BOZGORAILUAK	1
KAFE MAKINARAKO ALTZARIA	1
TELEBISTA, EUSKARRIA ETA ANTENAREKIN	1
MAHAI HERDOILGAITZ EUSKARRIA	1
3 HOZKAILU TINBRE DITUEN MAHAI HOZKAILUA	2
BARRARAKO IZOTZ MAKINA	1
PINTXOAK ERAKUSTEKO BEIRA ARASA HOZKAILUA	1
KOPA GARBIGAILUA	1
ARDANDEGIKO ARMAIRUAK (ARDOEN HOZKAILUA)	2
KOLORETAKO LASER INPRIMAGAILUA	1
KUTXAZAIN ERREGISTRATZAILEA, TERMINALA ETA GUZTI	1
KAÑAK BANATZEKO	2



MATERIALA	NEURRIA	unit.
THERMOMIX MODUKO PROZESATZAILEA	ESTANDARRA	2
BASKULA/PISUA	HANDIA	1
"	ERTAINA	1
"	TANITA	1
ZUKUGAILUA	ERTAINA	1
ZUKU-MAKINA	ERTAINA	1
FRIJIGAILU ERAMANGARRIA	EDUKIERA: 4 L	1
TENPERATURA BAXUAN EGOSTEKO MAKINA		1
INDUKZIO ERAMANGARRIA	2 SUTEGI	2
HOTZ EGOSIAK MOZTEKOAK	TXIKIA	1
TURMIXA	ERTAINA	1
"	TXIKIA	1
KE-HAUSPO PIPETA		1
MIKROUHIN-LABEA	ERTAINA	2
SOPLETEA	TXIKIA	2
MANDOLINA		1
HUTSEAN ONTZIRATZEKO MAKINA		1
SIFOIAK	EDUKIERA: 1 L	4
KITCHEN-AID MODUKO MUNTATZAILEA	ESTANDARRA	1
DESHIDRATATZAILEA		1
HARAGIA TXIKITZEKO MAKINA		
TAURUS PACOJET	ERTAINA	1
SUKALDARITZAKO TRESNA TXIKIEN MATERIALA		unit.
BIBEROIAK	1L	4
BIBEROIAK	0,25L	10
BIBEROIAK	0,5 L	10
BIHOTZAK KENTZEKO TRESNA		1
METALEZKO UZTAI ANGELUZUZENAK	DIAMETROA: 10 CM	4
PASTA MOZTEKO MAKINA	KITA	1
METALEZKO UZTAI BIRIBILAK	4 CM2	4
METALEZKO UZTAI TRIANGELUARRA	3 CM2	4
HAGAXKAK	TXIKIA	2
"	ERTAINAK	2
METALEZKO KATILUAK	0,5 L	4



"	1,5 L	4
"	2 L	4
"	2,5 L	4
"	5 L	1
PLASTIKOZKO KATILUAK	1 L	4
"	2,5 L	4
"	2 L	4
METALEZKO BROXETA	30 CM	50
BAHEA	ERTAINA	1
IRAGAZKI FINA	TXIKIA	1
"	ERTAINA	2
"	HANDIA	1
IRAGAZKI TXINATARRA	ERTAINA	1
"	HANDIA	2
SILPAT		6
KOKTEL-ONTZIA		2
SUPERBAG	ERTAINA	1
TUTUA	TXIKIA	2
PLASTIKOZKO ESKUZORROAK		2
KOKTAIL KOILARAK		1
HUTSEAN ONTZIRATZEKO POLTSAK	0,5 L	1000
"	1 L	1000
"	3 L	1000
ESPATULA TRIANGELUARRA		3
PALETA ANGELUZUZENA		4
PASTELETARAKO MOLDE BIRIBILAK	1,5 L	6
PASTELETARAKO MOLDE ANGELUZUZENAK	1,5 L	5
PIPERRONTZIA	ERTAINAK	2
BANAKAKO FLAN-ONTZIAK	0,125L	0
NITRILOZKO ESKULARRUAK	PACKA	1
PUREGAILUA		1
PLASTIKOZKO PINTZELAK		2
PINTZA HANDIAK		4
PINTZA TXIKIAK		5
BIRRINGAILUAK		2
MOTRILUAK	HARRIA EDO EGURRA	1
MIKROPLENE		2
EGURREZKO ARRABOLAK		1



SALTSARAKO ONTZIA	0,125	3
"	0,25	3
"	0,5	2
"	1	1
TXINO PISTOIA		2
EZKATAK KENTZEKO		1
BITSADERA	txikia	2
"	ertaina	3
"	handia	2
ESPATULAK	txikia	3
"	ertaina	3
ARMIARMA	ERTAINA	2
MATXETEA		1
ERRASKETA		1
INTXAUR-HAUSKAILUA		2
LATAK IREKITZEKO		2
ARBELAK		1
MOZTEKO TAULAK	TXIKIAK	2
"	ERTAINAK	4
"	HANDIAK	2
"	OGIZKOA	1
LABE-ONTZIA	1 x 1	2
gastronorms 1:1	10 LAU ETA 5 ZULATUAK	15
gastronorms 1:2	5 IZUR ETA 5 LAU	10
gastronorms 1:3	LAUAK	10
gastronorms 1:4	1 L	6
GASTRONORM 1:8	0,25 L	6
ONTZIAK	1 L	3
"	2 L	3
"	5 L	2
"	0,5 L	6
ELTZEA	20 L	1
"	50 L	1
"	10 L	2
SAUTEA	TXIKIA	1
"	ERTAINAK	2
"	HANDIA	3
ORGA		1



PLATERAK ERAMATEKO ORGA		1
ZARTAGINAK	45 CM	3
"	35 CM	4
"	25 CM	5
WOK ZARTAGINA	35 CM	2
PARISIEN	35 CM	2
RONDON	55CM	1
"	45CM	1
"	35CM	2
PLASTIKOZKO APAL DESMUNTAGARRIEN ALTZARIA	1200X700	1
ZENTRIFUGATZAILEA		1
METALEZKO ARRABOLA		1
PITXER NEURTZAILEA	PLASTIKOA	6
ARAVEN EDUKIONTZIAK	5 L	2
"	3 L	6
"	2 L	4
"	1 L	10
"	20 L	2
"	0,5 L	10
PRESIO-ELTZEA	10 L eta 20 L	2
	GARBIKETA	
GARBIKETA MATERIALA	NEURRIA	UNITATEAK
ELTXOEN AURKAKOA	PEQUEÑO	1
LURREKO ESKUILAK	KIRTEN LUZEKOAK	3
GARBIKETARAKO ZORU-GARBIGAILU INDUSTRIALA, ONTZIA ETA GUZTI		1
GARBITZEKO GOMAK		2
MOPA		2
KOLORETAKO ZAKARRONTZIAK		4
ZAKARRONTZI HANDIA	60 L	2
PLASTIKOZKO ONTZIAK, MAHAI TRESNAK ETA PLATERAK		4
ERRETILUAK		4
ERRATZA ETA PALA		1
ZORU-GARBIGAILUA ETA ONTZIA		1

JANGELAKO MATERIALA		
---------------------	--	--



MATERIALA	NEURRIA	unit.
KORTXO-KENTZEKOA		8
BOTILETARAKO IZOTZONTZIA		6
IZOTZONTZI handia, barrarako		1
SAGARDORAKO EDALONTZIAK		150
ARDO KOPAK		250
CAVA KOPAK		50
HURRUPA		50
HURRUPA LUZEA		50
BALOI KOPA		30
COGNAC KOPA		20
WHISKY EDALONTZIA		40
ZURITO EDALONTZIAK		50
BARRAKO TABURETE ALTUAK		8
ZATIKATZEKO SARDEXKA	ERTAINA	200
"	TXIKIA	100
ZATIKATZEKO AIZTOA	ERTAINA	200
"	TXIKIA	100
ZERRADUN AIZTOA	ERTAINA	150
SALTSARAKO KOILARA		100
KOILARAK	HANDIAK	100
"	ERTAINA	100
"	TXIKIA	100
"	MOKA	100
OGI SASKIA (gaztainondoa)		20
ERRETILUAK	50 X 45	
OLIONTZIAK		10
EGURREZKO ERRETILUAK		15
HAUTSONTZIA, GOITIK BEHERAKOA		2
METALEZKO ERRETILU biribilak		10
buztinezko kazolatxoak, platerean aurkezteko		30
buztinezko kazolatxoak		20
HAUR-AULKI ALTUAK		2
IZOTZEZKO PINTZAK		5
KIRIBILA		3
PLATERAK		
PLATER SAKONA		65
ZATIKATZEKO PLATERA	25 CM	150



ZATIKATZEKO PLATERA	12 CM	70
ERRETILU HANDIAK		15
PLATER ANGELUZUZENAK	12 CM	60
PLATER ANGELUZUZENA	30 CM	80
BUZTINEZKO KAZOLATXOAK		25
KRISTALEZKO KATILUAK		20
ARBEL ERTAINA		15
ARBEL HANDIA		15
PLATER BIRIBILAK	30 CM	50
COCOTTE, AURKEZTEKO		35
POTO HERMETIKOAK		20
BAXERA	EZBERDINAK, BEREZIAK, FORMAK...	50
MAHAI-TRESNA ETA PLATERETARAKO MAHAI-ARASA		1
GATZONTZIA		5

ALTZARIAK	NEURRIA	UNITATEAK
AULKIAK	EGURREZKOAK	16
AULKIAK LISBOA KOLOREDUNAK		44
MAHAI LUZEETARAKO AULKIAK	MAHAIAREN NEURRIA	16
Mahai biribilak (6 perts.)	120 cm diametro g.g.b.	2
JANGELAKO MAHAIK (4 PERTS.)	90 x 90 g.g.b.	15
MAHAI LUZEAK	80 x 220 g.g.b.	4
TABURETEAK		8

Proposamena onartzeko beharrezko gehiengoa: soila.

Eztabaida

Batzordeburuak esku-hartzeko txandak irekita, ondoren labur-labur zerrendatzen direnak izan dira:

Alkate jn.

Laburki azaldu ditu hitzarmenaren nondik norakoak.

Dubreuil jn.

Hitzarmenaren iraupenez galdetu du eta ea karrera-amaierako proiektu baterako den.



Alkate jn.

Hezkuntza proiektu bat dela esanez erantzun dio. Ateratzen den urteroko promozio bakoitzak gainerakoei erakutsi behar die. Janaria zerbitzatzear gain negozio bat kudeatu behar da.

Dubreuil jn.

Testutik "irabazi" hitza kentzea proposatu du, irabazi asmorik gabeko elkarte baita.

Bozketa

Eztabaida mahaian amaitu ondoren eta jendeari parte hartzeko aukera emanik, Alkate jaunak aurkeztutako proposamena bozketapean jarri du.

Bozketa egin ondoren honako hauek izan dira emaitzak:

Aldekoak: 7 (BILDU 6, PSE-EE (PSOE) 1)

Aurkakoak: 0

Abstentzioak: 5 (EAJ)

Beraz Alkate jaunak proposamena onartutzat jo du.



14.- Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

Maiza and

Esan du Nepalgo lurrikarak guztiok hunkitu gaituela. Nepaldar jatorrizko ordiziarren familiak, zorionez, onik daude. Udalak komunitate honi laguntza eskaini dio dirua biltzeko.

Prentsaurreko bat antolatu da eta gonbitea egin die beste alderdiei, azaltzeko.

.....

Alkate jn

Hau azken plenoa dela azaldu du eta agurtu ditu Udalbatzar kideak. Eskerrak eman die guztiei, gehienetan modu elegantean jakin dugulako legegintzaldia eramaten. Aniztasunak hobeak egiten gaitu eta hori aberasgarria izan da.



Asenjo in.

Esan du oso positiboa izan dela bere herriaren alde lan egitea. Eskerrak eman dizkie berarekin lan egin duten teknikariei.



Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

